

## ***Izuen gordelekuetan barrena berrirakurriz***

### *A re-reading of Izuen gordelekuetan barrena*

 Ane Arandia Morgaetxebarria\*


Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

**ABSTRACT:** *Izuen gordelekuetan barrena* is the first book of poetry published by Joseba Sarrionandia. When the book was published, in 1981, it received critical attention. Although some of the work's poems were published in other books, the new edition in 2014 was altered with several significant changes. On the basis of these variations, the prologue to the renewed edition and statements made by the author in recent years, this article proposes a new reading of the book based on some features that were not mentioned very much when it was originally published. We understand the book as an argument for poetic order written under the impulse of aesthetic intention and we would highlight its effort to create a literary language.

**KEYWORDS:** Joseba Sarrionandia; *Izuen gordelekuetan barrena*; literary language; experimentalism.

**LABURPENA:** *Joseba Sarrionandiaren lehen poesia-lana da Izuen gordelekuetan barrena. Liburua argitaratu zenean, 1981. urtean, harrera kritikoak lana nabarmendu zuen. Laneko olerki batzuk beste bilduma batzuetan argitaratu arren, 2014an heldu zen liburuaren edizioa, itxuraldatuta eta hainbat aldaketa esanguratsurekin. Aldaera horietatik, edizio berrituko hitzaurretik eta idazleak azken urteetan egindako adierazpenetatik abiatuta, liburuaren irakurketa berritua proposatzen da artikulu honetan, argitaratuta zen garaian asko aipatu ez ziren zenbait ezaugarri erreparatuz. Asmo estetikoaren bulkadapean idatzitako ordena poetiko baten proposamentzat aditzen dugu liburua, eta hizkera literarioa sortzeko ahalegina nabarmenduko genuke.*

---

\* Ane Arandia Morgaetxebarria. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila - Bilboko Ingeniaritza Eskola (UPV/EHU). Portugaete eraikina, Maria Diaz de Haro kalea, 68 - 48920 Portugaete - [ane.arandia@ehu.eus](mailto:ane.arandia@ehu.eus) -  <https://orcid.org/0000-0003-1001-9445>

*HITZ GAKOAK: Joseba Sarrionandia; Izuen gordelekuetan barrena; hizkera literarioa; esperimentalismoa.*

## **1. Sarrera**

Joseba Sarrionandiaren lehen poesia-liburua da *Izuen gordelekuetan barrena* (1981). Lanak 1980an VI. R. M. Azkue Saria irabazi zuen, eta Bilboko Aurrezki Kutxak argitaratu zuen hurrengo urtean. Barbachok (2008) dioenez, bizkaitarra lehenagotik zen ezaguna euskal kulturaren alorrean, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Pott* aldizkarietan argitaratutako artikuluetatik. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, hainbat poesia liburu argitaratu zituen: *Izuen gordelekuetan barrena* (1981), *Intxaur azal baten barruan*. *Eguberri amarauna* (1983), *Marinel zaharrak* (1987), *Gartzelako poemak* (1992) eta *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995); eta 2010eko hamarkadan sistematikoki heldu zien poema-liburuen edizio berriak egiteari. Edizio berrietako hitzaurreetan eta olerkietako egile-aldaeretan arreta jarrita, irakurketa berriak proposa daitezke. Bada, artikulua honetan iurretarraren lehen poesia liburuaren irakurketa berriua proposatzen da, edizioen arteko alderaketa lanaren eta garai hartako kritikak nabarmendu ez zituen alorretan sakonduz. Horretarako, lehenik, garaiko kritikak landutako ildoak aurkeztuko ditugu; bigarrenik, liburuaren bi edizioen alderaketa egingo dugu; hirugarrenik, gure ustetan liburuaren irakurketan funtsezkoak diren lau ezaugarri arituko gara (mito fundazionalaz, hizkera literarioaz, abangoardiez eta esperimentalismoaz, eta makrotestuaz); laugarrenik, hurrengo lanetan garatuko diren bi joera landuko ditugu (itzulpenak eta konstantentzat identifikatu ditugun bi egile-aldaera esanguratsu); eta, azkenik, zenbait ondorio aurkeztuko ditugu.

## **2. Harrera kritikoak**

Kortazarrek (1997: 75) dioenez, “*Izuen Gordelekuetan Barrena* liburuari buruz hitz egitea 80ko hamarkadaren hasieran argitaratu zen liburu handi bati buruz hitz egitea litzateke”. Otaegik (2000: 19) liburuak bereziki harrera ona izan zuela dio, euskal idazle kontsokratuen artean lekua eman ziola oso gaztetatik, eta irakurleek iurretarrarengan nortasun literario ondo definitua nabarmendu zutela, bai pentsamenduz, bai lengoaiaz. Lanari egindako iruzkinen artean, hiru motatako konstatazioak bereiz daitezke: lehenik, ardatz tematikoak; bigarrenik, kulturalismoari dagozkionak; eta, hirugarrenik, hizkuntza eta estilo ezaugarriak.

Ildo tematikoetan arreta jarritz, honako ardatz tematiko hauen inguruan aritu da kritika: bidaia eta marinel erromantikoa. Beste azpigai batzuk ere aipatu izan dira, hala nola paradoxa, baina bigarren mailan. Bidaiari dagokionez, izenburuak bidaia iradokitzen du (Azkorbebeitia 1998: 70). Kortazarren (2001: 57) ustetan, herritik deserrirako bidaiari poetak bere nortasuna bilatu nahi du; Aldekoak (2008: 288) bidaiaren eskema arketipikoaren arabera liburua dela diosku, eta Ulises dela protagonista nagusia. Bidaiaren arlo semantikoa presente dago hasieratik, “Bitakora kaiera” baita lehen adierazpena. Esplorazio bidaia da, ordea, eta noraezaren ideia dago (Kortazar 2001: 59). Zulaikak (2025: 165) dioenez, liburu hau “itsasoan girotsua da; itsasoa baita gertakizun erabakigarriak gertatzen diren lekua, han gauzatzen baita gizakiaren egiazko kondizioa-helmuga iraunkorrik ezagutzen ez den bizitzaren bidaiari”. Zazpi lurraldetan bidaiatzen du bidaiariak, eta hasierako eta bukaerako atalek izen bereziak dituzte: “Sorterri hautatua” eta “Iragan dira horik oro”. Tartean bost lurralde daude: Paris, Grezia, Lisboa, Irlanda eta Praga. Asko idatzi izan da bidaiaz, eta haren bidez adierazi nahi denaz. Azkorbebeitiak (1998: 70) deserrotze sentimenduaren ondorioztat ulertzen du bidaia, literatura tradizioa eraikitzeko beharrak bultzatuta, garai hartako euskal kulturaren pobretasuna zela-eta. Kortazarrek (2001: 79) dioenez, Gauguinek, Conradek edota Stevensonek sortutako marinelek bi arrazoi dituzte mendebalde zibilizatua utzi, eta bidaiatzeko: batetik, gizarte ofizialak (burgesak, positibistak eta industriadunak) sortu duen errealtatea gaitzesten dute; bestetik, primitiboak eta genuinoak bilatzen dute. Pertsonaia berria sortu zen garai hartan: “europarra izan arren, Europako interes ekonomikoekin bat ez datorren pertsonaia ziniko eta antiheroia, galtzaileen alde (eta indigenen ondoan) jartzen den pertsonaia” (Kortazar 2001: 82). Kortazarrek antzekotasunak ikusten ditu Sarrionandiarekin: “Bitakora kaiera idazten duen pertsonaia frankismoeko kultura arbuiatzen duena da” (2001: 84).

Bidaiarekin batera marinel erromantikoaren irudia ere sarri aipatu izan da. Liburua zabaldu, eta “Prologoa”ren ostean, Gustave Doréren grabatua dago, zeinetan masta buruan lotutako marinel bat dagoen. Ildo beretik, Rodriguezek erromantizismoarekin lotutako honako balore hauek identifikatu zituen: “naufregatzaera doan arren partitza erabakitzen duen Sarrionandiaren/marinelaren integritatea; hala nola, sinestean alde bizia emateko gertutasuna, gizartean toki goxo bat bilatzeari, mahai gainean urdaia eta ardoa edukitzeari eta gobernuarekin armonian bizitzeari ukoa” (Rodriguez 2013: 128).

Kritikak aho batez aipatu duen beste ezaugarri bat kulturalismoa da. Bidaiatzearen ideiarik lotuta, hainbat ikerlarik azpimarratu dute espazioz aldatzeak literatura berria aurkitzea ere badakarrela. Hainbat tradizio literario eta idazle daude liburuan. Azkorbebeitiak, esaterako, lotura hauek ezarri zituen:

Alegia, Baudelaire nahiz Mallarmé-ren testuekiko harremak “Paris neskazaharra” atalean agertzen dira, Greziaren ingurukoan G. Segeris eta Kavafis-en oihartzunak entzun ditzakegu, Pessoarekin (Alberto Caeiro-rekin) egingo dugu topo Lisboaren atalean barneratzean, Yeats eta D. Thomas-ekin Eire-koan eta, azkenik, “Prahako orenetan” ataleko hainbat poemek Kafka, Rilke nahiz V. Holan ekarriko digute gogora, E. Hoyo, J. Latartegi eta I. Zubizarretak ezin hobeto aztertu zuten «Izuen gordeleketan barrena-ri hurbilketa semantikoa» lanean (1992). Gainera dezadan, bakarrik, literatur testuekiko harremanak ez ezik, beste testu mota batzuekikoak ere agertzen direla *Izuen gordeleketan barrena*-n zehar, esaterako filmeekekoak (gogoratu, besteak beste, «Alexis Zorba zaharrak» eta «A midsummer night’s dream» eta ikusi, berriro ere, «Izen sonetoa») eta abestiekikoak (Edith Piaf ez da kasu bakarra). (Azkorbebeitia 1998: 89)

Ia zerrenda berbera egin zuten Otaegik (2000: 19), Kortazarrek (2001:60) eta Aldekoak (2008: 289), eta agerikoa da asko direla liburuan hauteman daitezkeen oihartzunak. Alabaina, bidaztiak bidaiatzean ez du literatura bakarrik aurkituko: musika eta arte-giroa ere badaude. Azkorbebeitiaren (1998: 71) iritziz, kosmopolitismoa da lanaren ezaugarria nagusia. Uste berekoa da Rodriguez (2013: 114), zeinak liburua ulertzeko kosmopolitismo eta metaliteratura gakoak direla dioen. Sarrionandiak berak, lanaren hitzaurrean, bere olerkigintzaren sorreraz hiru ezaugarri aipatu zituen, eta horietako erreferentzia literarioak dira:

Nire poemei dagokien aldetik, hiru gauza iruditzen zaizkit, poemagintzaren sorrerari buruz, aipagarri. Alde batetik, literatura oro literaturaren literatura da [...]. Beste aldetik, bizimodu arrunteko egoeratan ere sortzen dira ideia literarioak [...]. Hirugarrenez, Pott Banda aipatu behar dut ene erro literarioei buruz [...]. (Sarrionandia 1981: 6)

Azkenik, liburuaz aritzean idaztanka aipatu izan da. Azkorbebeitiak (1998: 118) zera azpimarratu zuen: “Hizkera horrek irakurlea gatibatu egiten du, testuon harreraren motore bihurtuz horrela, Sarrionandiaren bai poesia, bai prosazko lanei buruzko artikulu, erreseina nahiz azterketetan alderdi aipatu eta azpimarratuena izateak darakutsan legez”. Ildo beretik, Juan Ramon Madariagak honela gogoratzen du liburuaren irakurketa:

Hizkuntza bera, hasieran traba zena, lerroz lerro zutabe edo pilare antzean, buket ederra izatera iritsi zen [...]. Hitz magikoak, ele misterioitsuak, poemarekiko losintxak. Batzuk oraindik gomutatzen ditut: haboro, deslari, halaber, iduzki, tipino, haunitz, orena, profitatu, bozkarioa eta abar luze bat. Hitz hauen bidez Bilbotik at dagoen beste Euskal Herri hori ezagutu nuen, beste hizkuntza mota hori, beste paisaiak, beste gainak, oihanak, jendakiak, euskaldunak. Iparralde ahortan ere Xiberoko herria deskubritu nuen geroagoan eta horrela osatu nuen nere Euskal Herri propiala. (Madariaga 1995)

Kritikak idazkera nabarmendu zuen, eta hala hainbatek idatzi zuten iurretarraren idazkeraz: Markuletak (1990), Azkorbebeitiak (1998: 119) Otaegik (2000) eta Kortazarrek (2001), adibidez. Markuletak (1990) iurretarraren hiru ezaugarri nabarmendu zituen: “Europarekiko zabaltasuna, baliabide poetiko erabilien aniztasuna eta hizkera berezi propial baten guraria”. Kortazarrek (1982), bestalde, *Izuen gordelekuetan barrenako* hiru ezaugarri aztertu zituen, xeheki: hiztegia, matizazioa eta errepikapenak. Askotariko tonu eta erregistro aldaketak nabarmendu, eta liburuko hiru ezaugarri bidaia-liburuetakoein lotu zituen: polisindetona, beste hizkuntzetako esapideak eta dialektismoa (Kortazar 2001: 77).

Aipatutako ardatz tematikoein eta kulturalismoak liburuan duen garrantziarekin bat egiten dugu, eta horregatik ez ditugu landuko, gure helburua aipatu ez diren, edo, gure ustez, behar beste aipatu ez diren ezaugarriez aritzea delako. Edozelan ere, hizkerari helduko diogu aurrerago, 1981eko ediziotik 2014kora egondako zenbait aldaera esanguratsuak direlakoan, eta hizkera literarioarekin zerikusia dutelakoan.

### **3. *Izuen gordelekuetan barrena* 1981 eta 2014 parez pare**

Sarreran esan bezala, Sarrionandiak 2010eko hamarkadan ekin zion bere poesia liburuaren edizio berrituak egiteari. *Izuen gordelekuetan barrenako* olerki batzuk beste bilduma batzuetan argitaratu, eta 1980ko hamarkadan lana berrargitaratzeko proposamena izan arren, egileak uko egin zion liburua berrargitaratzeari. Izan ere, bere poetika aldatu zuen egileak, eta nahiago izan zuen bertako poema batzuk gerora sortutako beste batzuekin argitaratzea. 1984ko maiatzaren 22an Sarasketak Sarrionandiari egindako elkarrizketan zera adierazi zuen: “Gaur egun horko poema gehienak eztitut estimatzen. Ahortuta dago liburua baina berriro ateratzekotan ez nituzke berrargitaratuko horko poema batzu besterik” (Txaho 1984: 23). Hori horrela, *Marinel zaharrak* heldu zen 1987an, zeinetan lehen poesia liburuko olerkien aukeraketa egin, eta gerora sortutako beste batzuekin batera osatu zen. Gainera, *Marinel zaharrak* adierazi zuen “aukera zehatz bat egin ezinik, dudanarekin moldatu dut behin-behineko bilduma hau” (Sarrionandia 1987: 8). Esanguratsua iruditzen zaigu idazleak aipatzea behin-behineko bilduma dela, aukera zehatzik egin ezinik egindakoa. Izan ere, *Marinel zaharrak* idatzi zuen garaian egilearen poetika aldatzen ari zen, eta lehen poesia liburutik eramandako olerkietan aldaera esanguratsuak egin zituen. Edonola ere, 2014an heldu zen *Izuen gordelekuetan barrena* liburuaren bigarren edizioa, zeinak 1981ko liburuari jarraitzen dion. Ayerbek (2016) egin zuen *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko bi edizioetako eta *Marinel zaharrak* liburuko *Izuen gordelekuetan barrena* ataleko

olerkiak alderatzeko lehen saiakera. 2020an ikertzaileak berriro heldu zion olerki horien alderaketari, eta zera adierazi zuen:

Era berean, *Izuen gordelekuetan barrenaren* berrargitalpenean ere liburuaren eta poemen paratestuan aurkitzen dira aldaera esanguratsuenak (jatorrizkoan ez bezala, poema guztiek izenburua dute orain, eta epigrafeak zein eskaintzak aldatu egin dira). Deigarria da, bestalde, *Marinel zaharrak* libururako moldatu eta berridatzi ziren *Izuen gordelekuetan barrenako* jatorrizko poemak berrargitaratzerakoan ez direla kontuan izan orduan txertaturiko moldaketak. Beraz, ondorioztatu daiteke 2014ko edizioa prestatzerakoan Sarrionandia jatorrizko 1981eko edizioko testuetan oinarritu dela. (Ayerbe 2020: 88)

Gure ustetan, zentzua du 2014ko edizioak lehenengoari jarraitzea, liburuaren lehen ediziotik 33 urteetara, 80ko hamarkada hasierako bere poetikaren isla gisa onestea. Bestela esanda, *Marinel zaharrak*en idazlearen poetika garatuz zihoan, eta horregatik hautatu zuen olerki batzuk beste batzuekin batera ematea, eta lehen egitura deuseztatzea. 2014an, ordea, agian, bilakaera horren azken emaitza dagoeneko *Hnuy illa nyha majah yahoo* bilduman (1995) mamitutzat emanda, bere bilakaeraren errebasoa egin du, liburuaren berrargitalpenak eginez. Hori horrela, ulergarria da *Izuen gordelekuetan barren*a 2014ko 1981ekoa hurbiletik jarraitzea, garai hartako bere poetikaren erakusle baita; ez, ordea, ordutik aurrerakoarena. Gainera, aipagarria da lehen poesia liburuaren edizio berritua argitaratu zenerako, egilearen gainontzeko poesia liburuaren edizio berrituak bazeudela. Segidan bi edizioak erkatuko ditugu, eta 33 urtetan gertaturiko bilakaera testualaren arrastoari jarraituko diogu,<sup>1</sup> eta ahaleginduko gara erakusten gure iritziz badirela bi edizioen artean aldaera esanguratsu batzuk, paratestuez haratago.

Bi edizioen bizkarrezurra bera da, nahiz eta aldaera batzuk egon badauden. Biek bi hitzaurre dituzte, bata prosazkoa (lehen edizioan “Prologoa” eta bigarrenean “Bigarren ediziorako sarturrea”) eta bestea “Bitakora kaiera”. Bietan zazpi atalek osatzen dute liburuaren, horien ordena berbera da, eta ortografia eguneraketez gain, izenburuak berdinak dira. Salbuespen bakarra “Paris neskazaharra” “Asmatzen duten Paris” bilakatu izana da. Horrez gain, bi edizioetako olerki kopurua bera da, eta kasu gutxi batzuetan ordena aldatu arren (6 alditan), oro har, mantendu egin da. Azkenik, zenbait olerkiren izenburuetan aldaketa xumeak daude. Lehen edizioan hamahiru olerkik ez zuten izenbururik; bigarren edizioan, aldiz, guztiek dute, olerkiko

---

<sup>1</sup> Liburuak izandako bi edizioak erkatuko ditugun arren, *Izuen gordelekuetan barren*a bildumako olerki batzuk beste lan batzuetan ere argitaratu direnez, zenbaitetan argitalpen horiei ere egingo diegu erreferentzia, olerkietako egile-aldaerez aritzean.

lehen hitza edo esaldia, *incipita*, ezarri,<sup>2</sup> edota olerkian esanahi berezia zuen hitza aukeratu da izenburuetarako.<sup>3</sup>

### 3.1. Azala eta irudiak

Lehen edizioako azaleko irudia Escherren *Klimmen en dalen* da; bigarrenekoa, aldiz, Yturraldere *Figura imposible*. Irudia aldatu arren, kontuan hartzekoa da, Ayerbek (2016: 121) esan bezala, biak ala biak ezinezko egiturak direla. Escherren irudia gaztelu bat da, goitik ikusia. Goialdean, patio baten inguruan, eskailerak daude, eta bertan, soldadu batzuk bueltaka. Perspektiba jolasa da. Izan ere, gorantz doazen soldaduak beti bueltatzen dira plano berera nahiz eta inoiz ez jaitsi. Eta beste horrenbeste gertatzen zaie beherantz doazenei, beti plano berean daude. Kortazarren ustetan (1997: 86) irudi hori da, bere horretan, liburuaren metafora nagusia. Kritikariak irudian liburuan errepikatzen diren hainbat ezaugarri ikusten ditu, hala nola denbora ziklikoa, nihilismoa, labirintoa, fantasia edota ordenaren aldaketa (1997: 85). Era berean, irudi hori bidaiarekin lotzen du (Kortazar 2001: 85). Uste berekoa da Rodriguez (2013: 112), Sarrionandia gaztearen poetikaren zantzuak ikusten baititu lehen irudian: azalezko arintasuna edo ludismoa eta ondoko sakontasuna, jolaserako zaletasuna eta irakurlearekiko konplizitatea. Bi adituek diotenaren ildotik, soldaduen jokaerak kartzelako egoera irudika dezake. Garai hartako hainbat testuk horren alde egiten dute. Hala, kontuan hartzekoa da kartzelan idatzitako *Ni ez naiz hemengoa* liburuaren jatorrizko izenburua, aurre-testukoa,<sup>4</sup> *Laberintoko egunkaria* zela (Sarrionandia 1984) eta, ondorioz, zilegi dela pentsatzea kartzela bera dela labirintoa, eta bueltaka ibiltzea dela aukera bakarra. Horrez gain, lan horretako “Laberintoa habitatu” atalean, aurre-testuan baino ez dagoen pasarte batean, honela definitzen da labirintoa: “Bizitzaren iturrietatik hurrintasuna da laberintoa. Eguneroko urrats okerrak dira labyrinthoa, erloju etengabeek markaturiko zarratua. Laberintoa, halabeharrak eta oharkabean suertatzen diren gauzak dira” (Sarrionandia 1984: 179). Beraz, definizioeko elementu batzuk Escherren irudiarekin lot daitezke.

Edizio berrituko Yturraldere irudian ere antzeko ezaugarriak nabarmendu izan dira: “Cuatro *Figuras Imposibles* (1968-1973) desafían a nuestra lógica de la percepción, mediante

---

<sup>2</sup> Honako hauetan: “Udazkena”, “Lili bat”, “Loak hartua”, “Hil ez da deus hiltzen”, “Hegazti errariak”, “Gelan bakarrik”, “Dama zaharra”.

<sup>3</sup> Honako hauetan: “Argia”, “Euripean”, “Haizeak eramandakoa”, “Leioa”, “Itzalera”.

<sup>4</sup> Bellemin-Nöelek honela definitu zuen aurre-testua: “L’ensemble constitué par les brouillons, les manuscrits, les épreuves, les ‘variantes’, vu sous l’angle de ce qui précède matériellement un ouvrage quand celui-ci est traité comme un texte, et qui peut faire système avec lui” (Bellemin-Nöel 1972: 15).

formas compositivas inmersas en redes espaciales multidimensionales, que resultan increíbles y verosímiles al mismo tiempo” (Silvestre-García 2018: 18-20). Beraz, bi irudietan gure logika kolokan jartzen da. Baliteke Escherren irudia baztertu izana kartzelako konnotazioa izateagatik, edota egile eskubideen zerikusia izateagatik, eta antzeko logika jolas bat aurkitu izana Yturraldereen irudian.

Gainerako ilustrazioen deskribapen orokorrari dagokionez, Kortazarrek (1997: 79) adierazi bezala, lotura estua dute irudiek eta bidaia-literarioko hiri eta herrialdeek; adibidez, Pragan Golema dago, Parisen burgesia eta teknologia edota Irlandan ziklo arturikoa. Ayerbek (2016: 121), aldiz, bi edizioen arteko honako alde hauek aipatu zituen: jatorrizko edizioko 55. eta 73. orrialdeetako irudiak desagertzea, ilustrazioen ordena aldatzea, edizio eraberritan irudiei buruzko xehetasunak gehitzea, Arcimboldoren *Il Bibliotecario* eranstea eta, azkenik 1981eko edizioko 127. orrialdeko irudiaren ordez, antzekoa gehitzea 2014ko edizioko 63. orrialdean. Ildo horretan, azpimarratu nahiko genuke lehen edizioan irudiak sistematikoki epigramen ostean kokatu direla, egitura planteamendu bati atxikirik, eta hurrengo edizioan, aldiz, olerkien artean.

Moldaketa horiek interpretatzeko orduan, nabarmendu nahiko genuke Edith Piafen argazkia ezabatu dela. Izan ere, hori zen pertsonaia ez-mitologiko edo literario bakarra (gainerakoak Arturo, Golema, Colombina eta Arlekin dira). Hala ere, Colombina eta Arlekinen irudiak ere ezabatu dira; ondorioz, geratzen diren pertsonaien irudiak Artur erregearena, Golemarena eta Dorék marraztutako marinelarena dira. Beraz, interpreta daiteke liburuiko ildo tematikoaren dispersio elementuetako batzuk ezabatu nahi izan direla. Horrez gain, *caldariumeko* irudia Flazio de Pozzuoli anfiteatroaren lurpeko korridorearengatik ordezkatu da. Bietan ikus daitezke erromatar garaiko eraikuntza garrantzitsuak suntsiturik, eta, liburuaren edukia kontuan izanik, zentzua du termak anfiteatro bategatik ordezkatu izanak. Azkenik, gehitutako irudiari dagokionez, eta kontuan hartzen badugu guretzat liburu horren helburu nagusia euskal literatura fundatzea eta hizkera literarioa sortzeko ahaleginean urrats bat ematea zela, ezin hobeto ekarria da *Il Bibliotecario*ren irudia.

## **3.2. Hitzaurreak**

### *3.2.1. “Prologoa” eta “Bigarren ediziorako sartaurrea”*

Lehen edizioko prosazko hitzaurrea “Prologoa” da, Carabanchelgo espetxean idatzia. Bertan, poemei buruzko azalpenak eta egileari buruzko xehetasunak daude. Olerkiak urte osoan bildutako ohar eta gogoetaz baliatuz 1980ko irailean eta urrian idatzi zituela dio, edota liburu

argitaratu zenean, preso zegoela. 2014ko edizioan, ordea, “Bigarren ediziorako sarturrea” dago, eta zenbaitetan lehen edizioeko hitzaurrean esandakoen erantzun gisa uler daiteke. Izan ere, 1981ean “maiz entzuten da literatura hau ez dela entelegatzen, zaila dela, eta ea zertarako, ea norentzat idazten dugun” (Sarrionandia 1981: 7) adierazi zuen egileak. 2014an, ordea, garai hartan ulertezina zena gaur ulergarritzat hartzeak euskal literaturak egin duen bidearen lehen urratsetako bat izan zela dio. Eta, hortaz, bilakaera positiboa egin duela:

Liburua guztiz irakurriezina zela esan zidan orduan mundu guztiak. «Eta hitz hau nondik atera duzu?», galdetu zuen batek, «Eta orrialde honek zer esan nahi du», sama okertuz besteak, orrialdea buruz behera ikusteko edo, koadro abstraktuekin egiten zenez, badaezpada, horman aldrebes eskegita ote zeuden. [...] gaur egun modu korrientean irakur badaiteke, ezagun da orduko idazle eta irakurleek letra labirinto haiek komunikazio espazio bihurtzea lortu genuela. (Sarrionandia 2014: 8)

Horrez gain, zehaztu egiten da edizio berritan “idazkera oker batzuk zuzendu, orduko estiloari zegozkien iluntasun batzuk argitu, eta 1981eko [...] prologoa kendu d[el]a” (Sarrionandia 2014: 8). Bi edizioetako hitzaurrean errepikatzen den hausnarketetako batek lotura du sorkuntza prozesuarekin. Lehen edizioan lana argitaratzeaz zalantzati agertzen da, eta liburua “amaitu d[el]a” dio:

Luzaroan esku artean erabili ondoren, orain argitaratu egin behar da, beraz, liburua amaitu da niretzat. Argitaratu gabe, ene gordailuan geratu izan balitz, orduan, amaigabea litzateke, noizean behin begiratzeko eta seme ahul bati bezala laztantzeko beharrianagatik. Orain ez, argitaratu da, itsasontziak bota duen lastre bezala ahantz dezaket nik ere liburua, bildotsa egozten duen ardiak bezala esan dezaket: iadanik ez da nirea. (Sarrionandia 1981: 7)

2014an, ordea, kontrakoa iradokitzen du, obra amaitu ondoren bukaerarik ez dagoela: “Amaiera puntuaren ondoren ez dago perfekziorik, ez obra biribilik, baizik eta ezerezetik berriz eta bestela hasi beharra. Bilaketa delako poesia, eta, gertatu ondoren, beste parte batean dagoelako” (Sarrionandia 2014: 8).

Azkenik, bereziki nabarmendu nahiko genuke 2014ko hitzaurreko pasarte hau, irakurketa eguneratu baterako giltzarria delakoan: “Liburu hau, beste asko bezala, Ordena Poetiko baten proposamena zen. Ordena Politiko gogaikarri haren aldamenean, balizko komunikazio espazio literarioaren labirintora haztamuka sartzea, bestelako hizkera batekin, bestelako edertasun, etika eta harreman batzuen bila” (Sarrionandia 2014: 7).

### 3.2.2. “Bitakora kaiera”

Bigarren hitzaurrea “Bitakora kaiera” da, izenburua argitu eta eragina du liburuaren egituraketan. Izan ere, makrotestuaren ideari jarraiki, eta Arlandisi (2016: 329) segituz, *factor incidencial*tzat jotzen dira hitzaurre, hitzoste edota poetika baten adierazgarritzat aurkezten diren olerkiak.<sup>5</sup> Esaterako, *hitzaurre poema* bat faktore intzidentziala izango da, baldin eta esangura transzendenteko zama gehitzen badu, eta, horrez gain, liburuan errepikatuko diren elementu, sinbolo edota figurazio batzuk aurreratu edo ondorioztatzen baldin baditu. Hori da, hain zuzen ere, “Bitakora kaiera”ren kasua, bertako hainbat kontzeptu iparrorratz izango baitira. Hala, Kortazarrek zera adierazi zuen: “gaien eta kontzepzioaren deskribapena da. Gaiak: berton dira laberintoa, oroimena, etsipena (noraeza), horiek direlako liburuaren gai nagusitzat hautatzen, gaurko literaturaren joerak jarraituz; eta kontzepzioarena, liburuan zehar bidaia proposatzen zaigulako batasun hari gisa” (Kortazar 1997: 68). Horrez gain, Rodriguezek (2013: 116) dioenez, liburuan gehien nabarmendu den olerkia da. Markuletak (1990), bestalde, Pott taldeko literaturaren poetikatza hartu zuen. Eta, Koldo Izagirrek (1993: 66) dioenez, Sarrionandiak hitzaurre edo sarrera akademizista eta didaktikoaren aurka, hitzaurrea genero literariotzat hartu, eta belaunaldi berriko idazleek elkarri egiten zizkioten atarikoak.

Olerkiak bost argitalpen izan ditu: *Izuen gordeleketan barrena* (1981/2014), *Marinel zaharrak* (1987) eta *Hilda dago poesia?* (2016, 2018). Aldaera nabarmenak daude, izenburua tarteko. *Izuen gordeleketan barrenan* izenburua “Bitakora kaiera” da; *Marinel zaharrak*en “Bidaztiak izkiriitzen du” eta *Hilda dago poesia?* liburuan, aldiz, “Bidaztiaren izkribuak”. Hauxek dira poema-aldaerak:

“Bitakora kaiera”

“Bidaztiak izkiriitzen du”

Ingurubilean barrena abiatu da bidazia

noiz eta non sartu den oroitzen ez duen arren.

Bidea ingurubila bat dela suposatzen du, gauza berrietan

iragandakoen isladak somatzen dituelakotz.

Baina iraganaren isladak ez dira atseginak, izugarriak dira

zentrorantz amiltzen dela erakusten deraukotelakotz.

---

<sup>5</sup> Honela definitzen du Arlandisek *factor incidencial* delakoa: “un ‘factor incidencial’ en un texto poético podría ser un determinado poema realizando funciones de ‘prólogo’, de ‘poética’, o de ‘cierre’; o si, dentro del diseño macrotectual del libro, este poema ocupa un lugar céntrico no sólo numéricamente, sino también en cuanto a los factores tratados en su interior (eje temático, definición de una causa relevante, etc.)” (Arlandis 2016: 329).

Baina ba dea zentrorik?

Ala zabalalderantz amiltzen ote da?

Orduan pentsatzen du gordelekua behar duela eta zokoetan  
gordetzen du aldizka bere burua. Baina izuak ere  
bergordelekuetan ezkututzen dira.

Orduan pentsatzen du noraezean galduko dela eta hari bat  
behar duela labyrinthoan. Baina zer lokarritan  
etsi haria?

Orduan pentsatzen du oroitzapena bederen sostengatu behar duela  
eta bitakora kaier bat eskribatzen du, ilunabarrero.

Hauxe da noraezaren bitakora kaiera, bidaztiak  
haizerik gabeko itsasoan galerako ekaitza geroago eta  
gertuago somatzen duen lemazainaren antzera idazten du.

Etsipenez eskribatzen du:

ez prophetaren antzera, eroaren antzera baizik;  
ez Jainkoentzat, marionetentzat baizik;  
marionetak marionetentzat bezala eskribatzen du.

Eta bidaztiak badaki batzutan, baina bertzetan ez daki deusere:  
nor den, bere burua nortzu diren ere.

Batzutan pentsatzen du Europan barrena dabilela  
eulia emakume bilutsiaren gorputzean bezala.

Bertzetan bitakora kaiereko orrialde hutsei begira geratzen da,  
deus ere pentsatu gabe, edo ingurubilak marrazten.

(Sarrionandia 1981: 11-12)

“Bitakora kaiera”

Ingurubiran barrena abiatu da bidaztia

noiz eta non sartu den oroitzen ez duen arren.

Bidea ingurubira bat dela suposatzen du, gauza berrietan  
iragandakoen islak sumatzen dituelako.

Baina iraganaren islak ez dira atseginak, izugarriak dira  
zentrorantz amiltzen dela erakusten diotelako.

Badea zentrorik? Ala zabalalderantz amiltzen ote da?

Gordelekua behar duela otu zaio

eta zokoetan gordetzen du aldizka bere burua. Baina izuak ere  
bergordelekuetan ezkututzen dira.

Orduan pentsatzen du noraezean galduko dela eta  
hari bat behar duela labirintoan.

Beste poema baten bariazioa

Ez profetaren antzera, eroaren antzera,  
Ez jainkoentzat, marionetentzat,  
Pertsonak pertsonarentzat bezala izkiriartzen du.  
Bidaztiak badaki batzutan,  
Baina bestetan ez daki deusere,  
Bera nor, bere burua nortzu diren.  
Batzutan pentsatzen du munduan dabilela  
Eulia andere biluziaren gorputzean bezala,  
Bestetan liburuko orrialde hutsei begira  
Geratzen da, deusere pentsatu gabe  
Edo ingurubilak marrazten.

(Sarrionandia 1987: 114)

“Bidaztiaren izkribuak”

Bitakora kaiera

Baina zer lokarritan eutsi haria? Oroitzapenak bederen  
sostengatu behar ditu eta  
bitakora kaier bat izkiriartzen du ilunabarrero. Hauxe da  
noraezaren bitakora kaiera,  
bidaztiak haizerik gabeko itsasoan galerako ekaitza gero eta  
gertuago igartzen duen lemazainaren antzera  
idazten du. Etsipenez apuntatzen du: ez profetaren antzera,  
eroaren antzera baizik;  
ez Jainkoentzat, marionetentzat baizik; marionetak  
marionetentzat bezala eskribitzen du.  
Eta bidaztiak badaki batzuetan, baina bestetan ez daki:  
nor den, bere burua nortzuk diren ere.  
Batzuetan pentsatzen du European barrera dabilela  
eulia emakume biluziaren gorputzean bezala.  
Bestetan bitakora kaiereko orrialde hutsei begira geratzen da,  
deus ere pentsatu gabe, edo ingurubirak marrazten.

(Sarrionandia 2014: 11)

Bidaztiak, haizerik gabeko itsasoan  
galerako ekaitza gero eta gertuago  
sumatzen duen lemazainaren antzera idazten du.  
Bidaztiak etsipenez eskribatzen du:  
ez profetaren antzera, eroaren antzera.  
Ez jainkoentzat, marionetentzat;  
pertsonek pertsonarentzat bezala izkiriartzen du.  
Bidaztiak badaki batzuetan,  
baina bestetan ez daki deus ere:  
nor den, bere burua nortzuk diren ere.  
Batzuetan pentsatzen du munduan dabilela  
eulia emakume biluziaren gorputzean bezala.  
Bestetan liburuko orrialde hutsei begira  
geratzen da, deus ere pentsatu gabe,  
edo ingurubilak marrazten.

(Sarrionandia 2016: 14)

Begiratu bakar batean antzeman daiteke *Marinel zaharrak* eta *Hilda dago poesia?* bildumetako bertsiok esanguratsuki murrizagoak direla. Desagertzen den pasarteak marinel noragabetuaren ideiare egiten dio erreferentzia; bertsiok guztietan dagoen pasarteak, aldiz, idazketari nahiz idaztera bultzatzen duten arrazoiei. Aipagarria da 1981eko argitalpenean olerkia bitan banatuta dagoela, orrialde bakar batean sar zitekeen arren. Beraz, erabaki kontzientea da. Kortazarrek dioenez, *Marinel zaharrak*en noraezaren ideiare aipamenak desagertzen dira, eta arrazoitzat zera ematen du: “zalantzak joera postmodernoa salatzen du, zentroaren eta ingurunearen arteko loturarik eza” (Kortazar 2001: 60). Guk bestela ulertzen dugu noraezaren ideia kentzearena. Izan ere, *Ni ez naiz hemengoa* lanaren aurre-testuetatik bertsiok inprimatura dauden aldaera batzuk irakurleari mezu etsigarri eta malenkoniatsua ez emateko estrategiatzat uler daitezke, eta, hori horrela, kexuak desagertzen dira enuntziatuetatik (Arandia 2025a). Olerki honetan antzekoa antzeman daitekeelakoan gaude. Izan ere, *Marinel zaharrak*en mezu politikodun poesia nagusitzen den garaiko liburua da, eta uler daiteke mezua irakurle/borrokariei zuzenduta dagoela.

Beste aldaera esanguratsu bat nork norentzat idazten duen zehazten duen zatiari dagokio. Izan ere, *Izuen gordeleketan barrenan* “marionetak marionetentzat bezala eskribitzen du”, eta *Marinel zaharrak* eta *Hilda dago poesia?* liburuetan “pertsonek pertsonarentzat bezala izkiriartzen du”. Kortazarrek (1982) marionetak marionetentzat idazten duela azpimarratzen du,

ezen ez baitu ezer irakatsi nahi; bera bezalako menperatuentzat idazten du. Halere, bestela interpreta daitekeela uste dugu, XX. mendeko krisi filosofikoaren ildoan. Labirintoa, marioneta eta itsasoan doan marinel erraria gizaki postmodernoaren metaforak izan daitezke, erreferentzia erlijioso, ideologiko edo historikoak galdu dituenaren irudia; eta, halere, tragedia batetik ihesi doanaren jarreran, lehia itsuan, biziraute instintuari amore emanaz. Coleridgeren marinel zaharra bezala, itsasontzian eta haizerik gabe sentitzen da, ontzi madarikatuan. Ondorioz, poeta erromantikoa bezala, botere oso ahaltsu eta krudel baten menpeko zigortuaren ahotsa entzunarazten du poemak. Hori horrela, gure ustez, posible da marioneta pertsona bihurtzen dela interpretatzea, eta gizakiari buruzko ikuskera duinagoa egotea bertsio berrietan: ez dago noragabetua, ez da marioneta bezain menpeko. Pertsona da, errespetua irabazi du, egilearen begirada humanizatu, eta parametro dramatizatuak (gizakiaren ezintasuna) leundu egin dira.

#### **4. Liburuaren ezaugarri nagusiak**

##### **4.1. Mito fundazionala/ Jatorriaren mitoa**

Gaur egun, *Izuen gordelekuetan barrena* euskal poesia fundatzeko saiakeratzat irakurtzen dugu, eta, gure ustetan, giltzarriak dira hitz hauek: “Liburu hau, beste asko bezala, Ordena Poetiko baten proposamena zen” (Sarrionandia 2014 [1981]: 7). Izan ere, lerro horietan laburbil daiteke egitasmoaren muina: Ordena Poetiko baten proposamentzat du liburua egileak, bizi zuen sasoiari zegokiona, kontrakarra egina. Garai hartako errealitate politikoari egiten dio erreferentzia (ez alferrik *gogaikarri* adjektiboa erabiliz, eta, ondorioz, garaiko *desenkantu* sentipenarekin lotuz; ikus Arandia 2026) eta bestelako hizketa, edertasun etika eta harremanak aipatzen ditu. Hortaz, Ordena Poetiko hori euskal literaturak mundura zabaltzeko egin beharreko bidaiaren metaforan iltzatuta dago. Bilaketa eta itzulera daude, beraz, liburuan mamiturik. Itzulera, Europako hainbat herrialdetan egon eta hango kulturaz blaitu ostean, bueltatu egingo baita. Eta, bilaketa ere bada, bidaiaren helburua kultur adierazpenen bilaketa baita. Horrez gain, Kavafisen “Ithaka” da hipotestu<sup>6</sup> bitartekaria. Bizkaitarraren Odiseo berrituak begi ninietan iltzatuta ekarriko ditu beste literaturetako esperientzien altxorak gurera, Ordena Poetiko berri baten aitzindari. Alexandriarraren poemaren gai nagusia Itakara bueltatzea da, baina bidaiaria luzearen esperientziaz aberastu ondoren itzultzea da egiazko saria.

---

<sup>6</sup> Genettek, hipertestualitateaz ari zela, honela azaldu zuen zer zen hipotestua: “toute relation unissant un texte B (hypertexte) à un texte antérieur A (hypotexte) sur lequel il se greffe d’une manière qui n’est pas celle du commentaire” (Genette 1982: 13).

Iurretarraren liburuan beste horrenbeste aurki daiteke. “Ithaka” poemaren amaieran ikus daiteke liburuaren asmoa adierazirik:

Zeure adimenduan ukan ezazu Ithaka beti.  
Horrainoko etorrera da zure jomuga.  
Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bat ere.  
Hobe da anitz urte eder dirauela;  
eta behin zaharturik ja irlara heltzea,  
bidean irabazitako guztiarekin aberats,  
espero gabe Ithakak aberastasunik ematea.  
Ithakak bidaia eder bat eman zizun.  
Bera gabe ez zinatekeen abiatu.  
Baina ez dauka deus besterik zuri emateko.  
Eta pobrea edireten baduzu, Ithakak ez zintuen engainatu.  
Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin  
ulertu dukezu Ithakak zer erran nahi duten.

(Eguzkitza & Omatos 1995)

Horrez gain, 1975-80 arteko epean poesiara hurbildu zen euskal belaunaldiaren sorkuntzetan hirugarren filtro eta bitartekari gisa jokatu zuen hipotestua Lluís Llachen *Viatge a Ítaca* (1975) abestia izan zen, Homero eta Kavafisen ondoren. Hamarkada hartan Llachen kantua ereserki bilakatu zen etorkizun politiko baten utopiaren himno, bereziki Kavafisen poemaren amaierari Llachek lerro batzuk erantsi zizkiolako, eta Ulisesen bidaiari adiera politiko nabaria eman:

Bon viatge per als guerrers  
que al seu poble són fidels,  
afavoreixi el Déu dels vents  
el velam del seu vaixell,  
i malgrat llur vell combat  
tinguin plaer dels cossos més amants.  
Omplin xarxes de volguts estels  
plens de ventures, plens de coneixences

Bon viatge per als guerrers  
si al seu poble són fidels,  
el velam del seu vaixell  
afavoreixi el Déu dels vents,  
i malgrat llur vell combat  
l'amor ompli el seu cos generós,  
trobin els camins dels vells anhels,  
plens de ventures, plens de coneixences

(Llach 1975)

Sarrionandiaren bidaia literarioa mito fundazonaltzat aditzen dugu testuinguru horretan. Frankismoeko itxitasunetik atera, eta Europako literatura eta, modu orokorragoan, kultura adierazpenak ekarri nahi izan zituen gurera. Horrela, euskal poesia Mendebaldeko literaturaren

nukleo batzuekin harremanetan jarri gura zuen, eta euskal literatura han txertatu. Egileak honela azaldu zuen egitasmoa:

[L]iteratura, ostera, luzarora begira pentsatzen nuen, hizkuntza osatzeko eta literaturak zentzu kultural eta humanoan eman dezakeena emateko. Euskal literatura fase oso fundaziozkoan zegoen orduan, eta literaturaren espazio eta balio espezifikoak euskaraz lantzea gure liburuak momentuko politikaz gogaitzea baino inportanteagoa iruditzen zitzaidan. (Etxeberria 2002: 301)

#### 4.2. Hizkera literarioa

Liburuak izandako harrera kritikoa aurkeztu dugunean, hizkerari ere eskaini diogu abagunea, garaiko kritikek aipatu baitzuten. Arestian aipatutako fundazio ekintza horren ildoan ulertzen ditugu liburuko erregistro ugariak, eta horiek garai hartan sortzen ari zen hizkera literarioarekin harremanetan jarri behar dira, gure aburuz. Izan ere, bidaiaren mito egituratzailearekin batera, bildumako hizkera bera ere aipagarria da. Idazleak maiz adierazi bezala, garai hartan hizkera literarioa sortzeko ahaleginetan ari ziren. Ildo horretan guztiz interesgarriak da UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak (UIK) antolatutako *Joseba Sarrionandiaren literatura: bitakora kaierra* ikastaroan (Olaziregi & Eizagirre 2022) idazleak berak adierazitakoa:

Ni behintzat sentitzen naiz beste ehun idazle, beste berrehun idazleren laguna lan horretan... nire ustez 70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadan egin zen lan horretan, osea idazketa literario horren sorreran, ba Bernardo Atxaga izan zen, ba bueno, igual aipagarriena. Baina batez ere lan kolektiboa izan zen... Nire ustez ezin da ulertu euskal literatura konprenitu gabe hori. Euskara idazkera literario komun bat sortu zela momentu horretan, ezta? Hiper hizkuntza bat. Roland Barthesek deitzen duena idazkeraren 0 gradua. Hortik aurrera ya idazkera literarioa egiten hasi daiteke [...]. Denbora pasatuta gero, nik daukat inpresio arraro bat gure lan horretaz, gure belaunaldiaren lan horretaz. Nire ustez, euskarazko idazkera literario oinarrizko bat sortzea itzalezko lana izan da. 90etik aurrera, ia itzulpena posible da. Nire ustez, aurreko itzulpenak ez dira itzulpen ez ezer. Itzulpena Euskal Herrian posible da 90etatik aurrera. Ia itzulpen eskolak ere sortzen dira. Baina lenguaje literario transitable, habitable bat sortu delako, ezta? Eta, nire ustez gu gure belaunaldiak sortutako hizkera literario horrek baditu ezaugarri batzuk oso bereziak, ezta? Alde batetik oso kultura da.

Beste horrenbeste adierazi du egileak *Berrian* egindako elkarrizketan:

Idazten hasi nintzenean apolitikoagoa nintzen, hizkera literario bat sortzen laguntzea zen nire asmoa, euskara batua eta hizkera literarioa. 1970eko hamarkadako bigarren erdiko erretoika politikoekin nazkatuta nengoen, Pott Bandan hori topatu nuen, euskara literaturan kokatzeko gogoia. (Astiz 2024)

*Izuen gordelekuetan barrena* horren bisualizaziotzat deskribatu zuen *herrialde literarioetatik* egindako bidaiatzat, bidaia imajinariotzat. Unibertsaltasun nahi eta ezina, eta modernotasun bilaketa. UIKeko hitzaldian, 1970ez aurreko saiakerak *idiolektotzat* deskribatu zituen, horren adibidetzat Aresti, Etxaide eta Mirande aipatuz. Era berean, bi hamarkada lehenago Etxeberriak egindako elkarrizketan garai hartan irakurritako euskarazko hainbat liburuk sortutako inpresioa azaldu zuen:

Euskaraz liburu askok hizkuntza erdi propio erdi arrotzaren inpresio hori eman zidaten, baina ez zaharrek bakarrik, hizkeraren ia arrotzasun hori klasikoetan dialektoagatik eta antigoalekoagatik izan daiteke, baina erdi arrotzasun hori testu literarioaren ezaugarri orokorrigo bat da. Arrarotasun hori *Joanak-joan, Harri eta herri, Haur besoetakoa, 100 metro, Zergatik bai, Etiopian* ere aurkitu nuen. (Etxeberria 2002: 293)

Kritikak arreta bereziz aipatu duen Sarrionandiaren hizkera erregistro literarioa sortzeko ahaleginaren fruitu da, euskal literaturaren erduen gaurkotze eta literatura garaikidean txertatzeko ahaleginen emaitza. Aipatutako hizkuntza literarioa sortzeko ahalegin hori liburuan antzeman daitekeela uste dugu, eta horren lekuko direla lehen ediziotik bigarrenera gauzaturiko zenbait egile-aldaera, ezaugarri linguistikoei lotutakoak. 1981etik 2014ra bereziki ekialdeko euskalki literarioetatik datozen ezaugarri morfosintaktikoak estandarretako erabakitakoez ordezkatu dira, bai aditzei, bai atzizkiei dagokienez. Horien zenbait adibide emango ditugu segidan.

Atzizkiei dagokienez, lehen ediziotik bigarrenera honako hauek aldatu dira: *-lakotz* → *-lako*;<sup>7</sup> *-tekotz* → *-teko*,<sup>8</sup> *-tze kotzat* → *-tze ko*;<sup>9</sup> *-kotz* → *-koz*<sup>10</sup> eta *-rat* → *-rantz(a)/-ra*.<sup>11</sup> Beraz, ekialdeko formak orokorragez ordezkatu ditu. Aditzei dagokienez, zenbait kasutan

---

<sup>7</sup> Hona hemen pare bat adibide: *derautelakotz* (Sarrionandia 1981) → *diotelako* (Sarrionandia 2014) (“Bitakora kaiera”); *direlakotz* (Sarrionandia 1981) → *direlako* (Sarrionandia 2014) (“LIV epigrama”).

<sup>8</sup> Hona hemen adibide bat: *erakustekotz* (Sarrionandia 1981) → *erakusteko* (Sarrionandia 2014) (“Gutunak, usoak, eltxoak”).

<sup>9</sup> Hona hemen adibide bat: *eskaintzekotzat* (Sarrionandia 1981) → *eskaintzeko* (Sarrionandia 2014) (“Gutunak, usoak, eltxoak”).

<sup>10</sup> Hona hemen adibide bat: *lehendabizikotz* (Sarrionandia 1981) → *lehendabizikoz* (Sarrionandia 2014) (“Haren aiduru”).

<sup>11</sup> Hona hemen adibide pare bat: *barnerat* (Sarrionandia 1981) → *barrurantza* (Sarrionandia 1987) → *barrura* (Sarrionandia 2014) (“Pianistaren heriotza”); *norat* (Sarrionandia 1981) → *norantz* (Sarrionandia 2014) (“LV epigrama”).

etorkizuneko *-(r)en* forma *-ko* morfemagatik<sup>12</sup> ordezkatu da. Horrez gain, zukako alokutiboko formak kendu dira *Marinel zaharraken*, nahiz eta *Izuen gordelekuetan barrena* 2014an berriro dauden, gehienetan.<sup>13</sup> Aditz laguntzaileak ere aldatu dira 1981etik hurrengo argitalpenetara: *\*eradun* formakoak *\*i-*koengatik ordezkatu dira.<sup>14</sup> Horrez gain, egitura batzuetan ere lehen edizioan ekialdeko formak egon arren, horiek baztertu dira hurrengoetan. Horietako bat da *-ri buruz*. Izan ere, Ipar Euskal Herrian ohikoa da norabidea adierazteko *-rat / -ri buruz* egitura (Zuazo 2008: 232). Forma hori pare bat alditan dago *Izuen gordelekuetan barrena* 1981ean, baina ez 2014ko edizioan.<sup>15</sup> Horrez gain, ekialde gehieneko *-rtz-* kontsonante taldea aurki daiteke, mendebaldeko eta erdialdeko *-st-*ren ordeztuz;<sup>16</sup> horiek aldatu dira *Izuen gordelekuetan barrenatik Marinel zaharrakera*. Beraz, aldaketa linguistikoei dagokienez, atzizkien eta aditz laguntzaileen kasuan aldaketa dago lehen eta bigarren edizioen artean. Hortaz, aditz eta morfosintaxi moldeei dagokienez, lehen formulazioan hizkera literarioaren tradizioari oso atxikia dagoela ikus daiteke. *Marinel zaharrak* eta *Izuen gordelekuetan barrena* 2014an, aldiz, hizkera estandarrean nagusitu diren molde orokorrak daude.

Hizkera literarioaz ari garela, esanguratsua iruditzen zaigu bildumako “Ossian” olerkia, zeinetan hizkera epikora hurbiltzeko saiakera dagoen (zukako alokutiboaren formak erabiliz, adibidez). Hori horrela, honelakoak aurki ditzakegu olerkian: “*Fionno Finn mac Cumhail* gure aita / *Gabran-go* gudalekuan hil zen, / haren semea nauzu, mila batailatuko garailearen / eta azkenengoaren galtzailearen semea” edota “Hirurehun urtez bizi ninduzun, han non ezer ez den zahartzen” (Sarrionandia 1981: 99). Gainera, aipagarria iruditzen zaigu zukako alokutiboa liburuko beste olerki batzuetan ere badagoela, “Etxera Itzuli” eta “XXXVII. epigrama”n, baina

---

<sup>12</sup> Hona hemen pare bat adibide: *nehork ezaguturen* (Sarrionandia 1981) → *inork ezagutuko* (Sarrionandia 2014) (“Adiskide hilarekin ibilaldia”); *galdu eginen duzu* (Sarrionandia 1981) → *galduko duzu* (Sarrionandia 2014) (“Gilgamesh bidaztia”).

<sup>13</sup> Hona hemen adibide pare bat: *abestien xerka abiatu ninduzun* (Sarrionandia 1981) → *abestien xerka abiatu nintzen* (Sarrionandia 1987) → *abestien xerka abiatu ninduzun* (Sarrionandia 2014) (“Etxera itzuli”); *etxera itzuli ninduzunean / berria zizun ateko zura* (Sarrionandia 1981) → *etxera itzuli nintzenean, / berriak ziren atearen zura* (Sarrionandia 1987) → *etxera itzuli ninduzunean / berria zizun ateko zura* (Sarrionandia 2014) (“Etxera itzuli”).

<sup>14</sup> Hona hemen bi adibide: *erraiten derautzu* (Sarrionandia 1981) → *esaten dizu* (Sarrionandia 2014) (“Haigu”); *dautzut* (Sarrionandia 1981) → *dizut* (Sarrionandia 2014) (“Adiskide hilarekin ibilaldia”).

<sup>15</sup> Hona hemen zenbait adibide: *ene bihotza izarrei buruz* (Sarrionandia 1981) → *ene bihotza izarrei begira* (Sarrionandia 2014) (“IV epigrama”); *mendiari buruz abiatu zen* (Sarrionandia 1981) → *mendirantz jarraitu zuen* (Sarrionandia 2014) (“Estatuaren istorioa”).

<sup>16</sup> Hona hemen pare bat adibide: *bertze* (Sarrionandia 1981) → *beste* (Sarrionandia 1987) eta *ortzegun* (Sarrionandia 1981) → *ostegun* (Sarrionandia 1987).

ez gainerako liburuetan. Aipatutakoen artean “Etxera Itzuli” poema bakarrik argitaratu da beste bilduma batean, eta jadanik ez du zukako alokutiboko formarik. Hona hemen olerki amaierak: “denborak bidea ahorturik / etxera itzuli ninduzunean / berria zizun ateko zura / eta sarraila ere” (Sarrionandia 1981: 68), “Denborak bidea ahorturik, / etxera itzuli nintzenean, / berriak ziren atearen zura / eta zarraila ere” (Sarrionandia 1987: 84) eta “Denborak bidea agorturik / etxera itzuli ninduzunean / berria zizun ateko zura / eta sarraila ere” (Sarrionandia 2014: 67). Beraz, gure ustez, erabat lotuta daude hizkera epikora hurbiltzeko saiakera, darabilen erregistroa (Iparraldeko hizkera literarioari lotua) eta hizkera literarioaren sorrerako asmoa. Ondorioz, hizkera literarioari ekarpena egiteko borondatea antzeman daitekeela uste dugu, euskal literaturaren hizkera sortzearen bidetik, eta aipatu ez den ildo esanguratsua dela. Ildo horretan, 2014ko hitzaurreak bermatzen du hizkera literarioaren sorkuntzan egindako ahaleginak merezi izan zuelako poza. Izan ere, egileak dioenez, liburuak “munduaren eta bizitzaren esperientzia baino manierismo estetizista eta kulturalista” gehiago izan arren, orduko idazleek lortu zuten “letra labirinto haiek komunikazio espazio bihurtzea” (Sarrionandia 2014: 8).

“Soldadu hilaren ama” olerkiak ere aipamena merezi duela uste dugu. Olerkia *Izuen gordelekuetan barrena* eta *Marinel zaharrak* bildumetan argitaratu da, eta gertaera bera, soldaduaren heriotza, kontatzen da bi espaziotan, Irlandan eta Iparraldean, hurrenez hurren. Hori horrela, egileak hainbat moldaketa egiten ditu, tartean hizkuntzari lotutakoak ere. *Izuen gordelekuetan barrenan* gutuna “frentean idatzi” da, eta “amak eutsi egin ditu malkoak”, eta *Marinel zaharrak*en eskutitza “kasernatik izkiriatura” da, eta amak malkoak “xukatu” ditu.

### 4.3. Abangoardiak eta experimentalismoa

Kritikariek aho batez aipatutako kulturalismoarekin batera, abangoardiak berekin dakarren ludismoa bigarren ildo garrantzitsutzat ulertzen dugu. Abangoardiak, edo horien eskutik heldutako experimentalismoa, 70eko hamarkadako euskal literaturako ezaugarri nagusietarikoa da. Joko dadaistak, esaterako, 1970-1980 artean *Ustela*, *Oh! Euzkadi* eta *Pott* aldizkarietan aurki daitezke. Otaegiri jarraituz, joera horiek *Ustela* eta *Pottek* jasotako ideien kontrako jarrera kritikoa, eta egia absolutuaren uko argia egiten zuten. Halere, “jarrera ludiko eta ironikoa ere errealitate sozio-kulturalari bere aspektu asko eta askotan aurre egiteko bide dadaista hautatu zuten” (Otaegi 2013: 117). Ildo beretik, narrazioez ari dela, Aldekoak (2008: 284), kutsu abangoardista eta esperimentaleko obratzat jotzen ditu 70eko hamarkada amaierako obra hauek: Urkizuren *Sekulorun sekulotan* (1975), Saizarbitoriaren *Ene Jesus* (1976), Izagirrerren *Zergatik bai* (1976) eta Atxagaren *Ziutateaz* (1976). Bestalde, azpimarratu nahiko genuke Etxeberriak Sarrionandiari egindako elkarrizketan, elkarrizketatzaileak Orwellek literaturan

definitutako lau motibazioa edo eragileen artean (egoismoa, pasio estetikoak, lekukotasuna eta asmo politikoa) bere kasuan zeinek duen pisu gehien galdetuta, honako hau erantzun zuela idazleak: “Lauek, baina bat aipatzekotan, lehenengo poesia liburuan, pisu gehien, bigarrenak duela uste dut, eta beste liburu gehienetan seguru asko hirugarrenak” (Etxeberria 2002: 289). Honela definitu zituen pasio estetikoak idazleak: “denok bilatzen dugu egiten duguna ederra izatea [...] eta idazlea etengabe dabil forma ederragoen bila” (Etxeberria 2002: 288).

Sarrionandiaren lehen poesia-liburuan badira olerkiko elementuekin egindako jolasen edo ingenio jolasen emaitza diren zenbait poema, horien artean simetria grafikoa erabiliz, hitz hurrenkera aldatuz egindako bariazioak, edota anadiplosiaz baliatuz gauzatutakoak. Horietaz arituko gara segidan.

Lehenik, liburuan badira egileak *begitazio*<sup>17</sup> izendatu dituen zerbait olerki, zeinak atzekoz aurrera ere irakur daitezkeen, honako olerki hau kasu:

hor  
horma lohi horretan  
duk eskegia  
leioha  
begira ezak  
argia  
begira ezak  
leioha  
duk eskegia  
horma lohi horretan  
hor

Seigarren bertso lerroaren (erdikoaren) goranzkoa eta beheranzkoa simetrikoa da. Bederatzi dira horrela sortutako poemak: “Azkenengo trenak”, “Argia”, “Lili bat”, “Loak hartua”, “Ez da deus hiltzen”, “Hegazti errariak”, “Gelan bakarrik”, “Leioha” eta “Itzalera”. Iurretarrak, *Gure Oroitzapenaken*, olerki hauei buruzko azalpenak eman zituen. “Lili bat” poemaz, esaterako, zera adierazi zuen:

Erretorikaren basamortuan, haluzinazio ineditoak. Hitzak eta kontzeptuak lotzen eta soltatzeko idazten genuen, esandakoa atzekoz aurrera errepikatzen, adierazkortasun formen bila. Lengoia konbentzionalaren

---

<sup>17</sup> Beste batzuetan *simetria grafiko* edo *haluzinazio* izendatu ditu olerki horiek.

zentzia desmontatuz errealitatea ere desmonta zitekeelakoan. Baina, errealitatea, gure imajinatze eta adierazteko ahalmena baino gehiago zen. (Sarrionandia 2018: 32)

“Hegazti errariak” olerkiaz, bestalde, honako hau: “Errealitate soziopolitikoaz aspertuta, erretorika literario nagusiez gogaituta, objektuen eta hitzen arteko distantzia larriaz ohartuta, krisi semantikoaren basamortuan, poema bisualak-edo moldatzen ahalegindu nintzen hasieran, 1977an edo 78an” (Sarrionandia 2018: 11). Adierazpenon arteko koherentzia aipagarria da: ez dugu uste kasualitatea denik horrelako formak dituzten olerkietan asperdura, gogaitasuna edota basamortua bezalakoak aipatzea, eta trantsizio garaiko *desengainu*arekin lotu behar dira, gure ustetan.

*Begitazio* edo *haluzinazio* izendatutako olerkiak jolas formalak dira. Era berean, aipagarria da gehienak *Izuen gordelekuetan barrenan* bakarrik argitaratu direla. Horietako hiru *Gure oroitzapenaken* ere badaude,<sup>18</sup> eta bakar bat dago *Hilda dago poesia?* lanean.<sup>19</sup> Beraz, olerkiek izandako ibilbideari erreparatuz, badirudi egileak ez zituela aintzakotzat hartzen kartzelako urteetako poetika errealistago eta zuzenagora jo zuenean. Bestela esanda, garaiko espirituari lotuta daude. Ildo horretan, aipagarria iruditzen zaigu egileak “Lili bat” olerkiaz adierazitakoa:

“Entzun dut orain hogeita hamar urte neuzat hartzen nuen gizajo zozote horrena: sinesteko ere hain tontoloa zela...”

Hori grabatu du Krappek, platano bat janez. *Azken zintako* pertsonaia da Krapp, zinta magnetikoan antzina grabaturikoa entzun eta komentario berriak grabatzen dituena. (Sarrionandia 2018: 32)

Nabarmentzekoa da 2014ko edizioan sistematikoki erantsi zaiela hauei guztiei izenburua, eta erdiratu direla; horrela simetria agerikoagoa da. Horrezaz gain, ez dute puntuazio zeinurik. Hona hemen adibideetako bat:

#### ITZALERA

Itzaltzen ari  
bizitza  
etxe handietan argia bezala  
gelaz gela  
etxe handietan argia bezala

Itzaltzen ari  
bizitza  
etxe handietan argia bezala  
gelaz gela  
etxe handietan argia bezala

---

<sup>18</sup> “Azkenengo tren”, “Lili bat” eta “Hegazti errariak” (Sarrionandia 2018).

<sup>19</sup> “Hegazti errariak” (Sarrionandia 2016).

bizitza  
itzaltzen ari

(Sarrionandia 1981: 136)

bizitza  
itzaltzen ari

(Sarrionandia 2014: 128)

Bigarrenik, liburuko beste alderdi azpimarragarri bat poemen formari dagokio. Nabarmentzekoa da, esaterako, lehen edizioan “Olerkia”k baduela eskumako orrialdean “Izpilua”, zeina olerki bera den, baina eskumatik ezkerrera idatzita, ispilu baten bidez irakurri beharrekoa, alegia. Hurrengo edizioan, ordea, jolas hori desagertu egin da. Hauek dira lehen edizioko 28. eta 29. orrialdeak, hurrenez hurren:

#### OLERKIA

Olerkiak sortu zuen lurra  
lurrak sortu zuen ura  
urak sortu zuen zura  
zurak sortu zuen hostoa  
hostoak sortu zuen haizea  
haizeak sortu zuen karnaba  
karnabak sortu zuen olerkia

olerkiak hil zuen lurra  
lurrak hil zuen ura  
urak hil zuen zura  
zurak hil zuen hostoa  
hostoak hil zuen haizea  
haizeak hil zuen karnaba  
karnabak hil zuen olerkia

#### IZPILUA

Olarkiak sortu zuen lurra  
lurrak sortu zuen ura  
urak sortu zuen zura  
zurak sortu zuen hostoa  
hostoak sortu zuen haizea  
haizeak sortu zuen karnaba  
karnabak sortu zuen olarkia

olarkiak hil zuen lurra  
lurrak hil zuen ura  
urak hil zuen zura

Aipagarria da, *begitazioak* alde batera utziz, oro har, lehen edizioan gehiago jolasten duela olerkien forma bisualarekin. Hainbat poematan formak badu garrantzia, garai hartako beste testuren ildotik. Esaterako, Pott Bandako aldizkarian badago “Botila” kaligrama; *Zeruko Argian* Sarrionandiak idatzitako “Guillaume Apollinaire (1880-1918). Artearen eta literaturaren bidegurutzean” (1980) artikulua abangoardismoek Apollinairerengan izandako eraginaz dihardu; kaligramak ere aipatzen ditu; edota *Hitzen ondoezan* (Sarrionandia 1997) Apollinaireren kaligrama bat dago. Aipamen labur horien asmoa da erakustea iurretarrak, egile ibilbidearen hasieran behintzat, garrantzi berezia eman ziola poemaren adierazpen grafikoari,

eta poesia bisualaren ildotik esperimentazioan aritu zela, baina 2014ko edizioan eragin hori ezabatzea egingo du. Horren erakusgarri da, esaterako, lehen edizioan erdiratuta zeuden hainbat olerki<sup>20</sup> ezkerretara lerrokatu direla edizio berrituan. Hauxe adibideetako bat:

“Etxera itzuli”

altxorren mapak besapean  
etxea utzi eta ondinen  
abestien xerka abiatu ninduzun  
izuen gordelekuetan barrena

sukarri urdinarre tipiak  
eta oiha beltzetako xokotan  
usteltzen diren xoxo habiak soilik  
nizkizun bidaian eriden

denborak bidea ahorturik  
etxera itzuli ninduzunean  
berria zizun ateko zura  
eta sarraila ere

(Sarrionandia 1981: 68)

“Etxera itzuli”

Etxea utzi eta, altxorren mapak  
besapean, ondinen abestien  
xerka abiatu ninduzun  
izuen gordelekuetan barrena.

Sukarri urdinarre tipiak eta  
oiha beltzetako xokotan  
usteltzen diren zozo habiak soilik  
nizkizun bidaian ediren.

Denborak bidea agorturik  
etxera itzuli ninduzunean  
berria zizun ateko zura  
eta sarraila ere.

(Sarrionandia 2014: 67)

Hirugarrenik, ludismoarekin lot ditzakegu liburu honetako beste zenbait olerki, hitz-hurrenkera aldatuz, edota anadiplosi bidez osatutakoak. Hitz-hurrenkera aldatuz sorturiko olerki bat dago: “Margoa pinpilinpausa lekua”. Halere, *Marinel zaharrak* (1987) eta *Kartzelako poemak* (2011) bildumetan badira horrela sortutako beste olerki gutxi batzuk. Anadiplosia, berriz, baliabide emankorragoa da, eta zenbait olerkitan aurki daiteke. “Alexis Zorba” olerkian, esaterako, bertso lerro amaierako azken bi hitzak hurrengo bertso lerroko lehenengo biak dira. Horrela kontatzen zaigu Teseo eta Ariadnaren istorioa. Gainera, ez dago puntuazio ikurrik, eta olerkiko azken hiru hitzak hasierako lehen hirurak dira. Beraz, amaierak hasierara garamatza berriro, egitura biribila sortuz, eta olerkia amaierarik gabe utziz. Hauxe olerki hasiera:

---

<sup>20</sup> Honako hauek lerrokatu dira ezkerretara edizio berrian: “Oskorriko arragoak”, “Hilarria”, “Pianistaren heriotza”, “Haigu”, “Adiskide hilarekin ibilaldia”, “Paris neskezaharra”, “Alexis Zorba Zaharra”, “Etxera itzuli” eta “Erin”.

Alexis Zorba zaharrak ezagutzen ditu haunitz uharte  
 haunitz uharte dira Egeo itsasoan ereinak  
 itsasoan ereina halaber Kretako irla  
 Kretako irla eta han Cnosos labyrinthoa

(Sarrionandia 1981: 67)

Halere, aipagarria da olerki horrek izan dituen gainerako argitalpenetan, hots, *Marinel zaharrak* (1987), *Izuen gordelekuetan barrena* (2014) eta *Hilda dago poesia?* (2016) lanetan azken puntua duela poemak, eta ondorioz, egitura biribil horrekin amaitzen dela. Poema hori da adibiderik argiena, baina badira beste batzuk ere: “Dama zaharra”, “Sortzeen olerkia” eta “Hautsia”. Horien artean, “Sortzeen olerkia”k aldaera nabarmenak ditu, hona hemen:

“Olerkia”

Olerkiak sortu zuen lurra  
 lurrak sortu zuen ura  
 urak sortu zuen zura  
 zurak sortu zuen hostoa  
 hostoak sortu zuen haizea  
 haizeak sortu zuen karnaba  
 karnabak sortu zuen olerkia

olerkiak hil zuen lurra  
 lurrak hil zuen ura  
 urak hil zuen zura  
 zurak hil zuen hostoa  
 hostoak hil zuen haizea  
 haizeak hil zuen karnaba  
 karnabak hil zuen olerkia

“Sortzeen olerkia”

olerkiak sortu zuen lurra  
 lurrak sortu zuen ura  
 urak sortu zuen zura  
 zurak sortu zuen hostoa  
 hostoak sortu zuen haizea  
 haizeak sortu zuen karnaba  
 karnabak sortu zuen olerkia  
 olerkiak sortu zuen karnaba  
 karnabak sortu zuen haizea  
 haizeak sortu zuen hostoa  
 hostoak sortu zuen zura  
 zurak sortu zuen ura  
 urak sortu zuen lurra  
 lurrak sortu zuen olerkia

Erraz antzeman daitekeenez, bertso lerroetako azken hitza eta hurrengokoa berdina da; eta, era berean, olerkiko lehen hitza eta amaierakoa berbera. Halere, Sarrionandiaren poemaren bi bertsioen artean bada aldaera garrantzitsu bat, Ayerbek deskribatutakoa: “‘sortu zuen’ > ‘hil zuen’ aditz aldaketak markatzen du poemaren garapena eta bertso-lerroak errepikatu arren, aditza da aldatzen dena; berridazketan, ordea, ez da aditzik aldatu eta ‘sortu zen’ aditza aldatu gabe, amaieran *ritornelloaren* gisako teknika erabiliz osatu da poema” (Ayerbe 2016: 113).

“Hautsia” olerkia ere aipa daiteke. Bertan, behin eta berriro errepikatzen da *hautsia* hitza, eta aldi bakoitzean izen desberdin bati lotuta dago. Errepikapen horrek intentsifikazioa dakar, eta XX. mendeko krisi filosofikoaren magnifikazioa lortzen du: ideologia handien amaiera

(erlijioak, ideologiak, identitatea eta abar). Munduaren logika eta progresuaren ideia hautsi dira. Era berean, horrek mundua kolokatia eta hauskorra dela sentitzera darama, eta ondorioz gizabanakoa noraezean dabilela transmititzen du.

Laugarrenik, Sarrionandiaren literaturan intertestualitateak duen garrantzi handiaren adibidetzat maiz aipatu da “Berrogei izen”, zeina kultur erreferenteen izen-abizenak bakarrik erabiliz sortutako sonettoa den. Izenak soilik erabiltzearen murriztapena jolas gisa ulertzen dugu eta, beraz, abiltasun ariketa formaltzat aipa genezake.

Bosgarrenik, “Be a fine girl, kiss me” ere nabarmentzekoa da, arau mnemotekniko ezaguna baita, zeinaren bidez astronomian izarren sailkapena egiten den, ezaugarri espektralak kontuan hartuta. Egun, izar gehienak Morgan-Keenan sistema erabiliz sailkatzen dira, eta O, B, A, F, G, K eta M izar motak bereizten. M letra izar hotzeneri erreferentzia egiteko erabiltzen da, eta O beroenetarako. Hortaz, arau mnemotekniko bat hartu, eta horretan oinarrituz osatu du izarrei buruzko olerkia, sailkapenari jarraituz. B motako izarrek dira bigarren ahapaldiko Rigil eta Orion; A motakoak, hirugarren ahapaldiko Sirio eta Vega; F motakoak, laugarreneko Procyon eta iparrizarra; G motakoak, bostgarreneko eguzkia eta Capella; K motakoak “ez dira ikusten iadanik unibertsoaren / baratzean galdurikako laranja tipiak” (Sarrionandia 1981: 96); eta, azkenik, M motakoak, zazpigarren ahapaldiko Betelgeuse eta Antares.

Pasio estetikoaz, abangoardiaz eta edertasunaren esperimentalismoaz ari garela, Oulipo taldeaz hitz egin beharrean gaude. Izan ere, horien arteko bidegurutzean kokatzen da taldea. OuLiPo “OUvroir de LIttérature POtentielle” esapidearen laburdura da, eta euskaraz “Balizko Literaturaren Atelierra”, “Literatura Egingarriaren Lantegia” edo “Literatura Potentzialaren Lantegia” izendatu ohi da (Arranz 2006: 19). Taldeko partaide izan ziren, beste batzuekin batera, François Le Lionais, Raymond Queneau eta Georges Perec. Helburua hizkuntzaren potentzialtasun berriak ezagutzea da, eta idazketa jolasen bidez adierazpena modernizatzea. Taldea ezaguna da hizkuntzari matematika erronkak ezartzeagatik. Ouliporen oinarria *contraintes* edo murrizketak dira, zeinak honela azaldu zituzten *LA LIPO (Le premier Manifeste)* delakoan:

Toute œuvre littéraire se construit à partir d’une inspiration [...] qui est tenue à s’accommoder tant bien que mal d’une série de contraintes et de procédures qui rentrent les unes dans les autres comme des poupées russes. Contraintes du vocabulaire et de la grammaire, contraintes des règles du roman (division en chapitres, etc.) ou de la tragédie classique (règle des trois unités), contraintes de la versification générale, contraintes des formes fixes (comme dans le cas du rondeau ou du sonnet), etc. (Oulipo 1973: 20)

*Izuen gordeleketan barrenan* aztertutako olerki batzuek oulipotarren planteamenduarekin bat egiten dutela uste dugu. Idazleak *begitazio* izendatu dituen olerkiak, esaterako, olerki palindromo bezala uler daitezke, ez eskumatik ezkerrera irakur daitezkeelako, baizik eta amaieratik edo hasieratik irakurtzen hasi, berdin-berdinak direlako. Bestalde, ezaguna da sonetoei interes berezia sortu zutela oulipotarrengan, eta horiekin esperimentatu zutela. Adibidez François Le Lionnaisek hitz gramatikalak bakarrik dituen sonettoa proposatu zuen. Antzekoa egin zuen Iurretakoak “Berrogei izen” olerkian. “Mundua pinpilinpausa lekua” eta “Sortzeen olerkia” izenekoetan, aldiz, hitzen ordena aldatzen da. Lehen olerkiaren kasuan, hiru dira olerkia sortzen duten hitzak: mundua, pinpilinpausa eta lekua. Horien ordena aldatzen da, eta, Iñaki Arranzek dioen bezala, hitzen funtzioak aldatzen dira permutazio horietan (Arranz 2006: 114). Hitzen ordena eta beraien funtzioa aldatuta, posible ziren konbinazio guztiak erabiltzen ditu. Beranduagokoa izan arren, *Akordatzen* (Sarrionandia 2004) liburua aipatu beharrekoa da. Jakina denez, Sarrionandia Brainarden *I remember* (1970) eta Perecen *Je me souviens* (1978) lanetan oinarritu zen oroitzapenez osatutako liburua sortzeko. Ildo honetan, interesgarria da *Akordatzen* laneko nahiaren eta ezinaren arteko aitortpen moduko hau: “Abangoardiakoliteraturaeginnahigenuela akordatzen naiz. Eta ez zela gauza hain erraza, letrak pilatu eta endredatzea besterik ez genuelako lortzen” (Sarrionandia 2004: 34). Era berean, aipatuko nahiko genuke Sarrionandiak hainbat testutan palindromoei buruz diharduela.<sup>21</sup> Hortaz, kontuan hartzekoa da 1980ko hamarkadatik 2023ra arteko epean ez dela apaldu Sarrionandiaren esperimentazio poetikoarekiko interesa, nahiz eta bera bestelako poesia baterantz lerratu.

Ikusiak ikusi, *Izuen gordeleketan barrena* abangoardiarekin lotuko genuke, eta nabarmenduko genuke Sarrionandiaren liburu honen baliabide literarioetan dikziozko figura sintaktikoek dutela indar gehien, eta euskal poesiak 1970eko hamarkadan izandako esperimentalismo formalaren indar handia antzeman daitekeela. Poeta ibilbidean aurrera egin ahala, oso bestelako ezaugarriak dituen poetikaranzko aldaketa sumatuko da.

#### 4.4. Makrotestua

Cortiren (1976) *printzipioetan* agertzen denez, makrotestuaz aritzeko, ezinbestekoa da bilduma osatzen duten testuen artean elementu tematiko edo/eta formalen arteko konbinazioaren

---

<sup>21</sup> *Gauzak direnak baliran* sarrera luzexka eskaintzen die eta Oulipo taldea aipatzen du (Sarrionandia 2020: 69). *Markos Gimenoaren 101 letrakartel* (2023) ere aipagarria da. Palindromoez gain, dadaismoari eskainitako ataltxo bat ere badago liburuan (Sarrionandia 2023: 191), eta bertan ere aipatzen da Oulipo taldea.

bat egotea, zeinak bildumari batasuna emango dion. Horren harira, bizkaitarrak 1981eko “Prologoa”n adierazi zuenez, “egiturazio orokorra” dago, nahiz eta “poema bakoitzak badu[en] autonomia”:

Esan bezala, 1980. urtean zehar sorturikakoak dira poemak eta, banan bana, sortuak direnez areago da poema bilduma, poema oso bat baino. Eta poema bilduma den arren ere, badu bilakaera edo egiturazio orokorra. Bada sarreran, liburua “bitakora kaiera” bat dela esaten da eta ondorengo, beraz, bidaia bezala azaltzen da, bilduma zazpi zatitan banaturik [...]. Orohar, liburua zazpi ataletan banatzen den arren, poema bakoitzak badu autonomia eta, beraz, egiturazio orokorra ez da trinkotzat hartu behar, izan ere bilduma ez bait da homogeneoa, ez lengoaiaren, ez gaiaren, ez tankeraren aldetik. Desberdintasunak daude eta ez ditut orain berdindu nahi izan [...]. (Sarrionandia 1981: 5-6)

Egituraketa orokorrari dagokionez, esan bezala, zazpi atalek osatzen dute. Atal bakoitzari hasiera emanez orrialde zuri batean izenburua dago, eta aipu bat eskumaldean, behean. Horrez gain, atal bakoitzaren amaieran epigramak daude, kasu horretan ere orrialde zuri batean “Epigramak” eta hurrengo bi orrialdeetan sistematikoki erromatarrez zenbakitutako zortzi epigrama, eta horien ostean ilustrazioak. Horrek ere eragina du liburuaren egituraketaren simetria efektuan. Halere, 2014ko edizioan epigramak aurkezten zituen orrialde zuriak desagertu, eta zuzenean txertatzen dira, eta ilustrazioak olerkien artean tartekatu dira.

Liburuan proposatutako bidaia literarioak egitura zirkularra edo biribila du, eta hori makrotestuarekin harremanetan jarri behar delakoan gaude. Ondorioz, liburuko lehen eta azken olerkiek funtzio berezia dutela uste dugu. Lehen olerkia, “Bitakora kaiera”, hitzaurre lirikotzat hartu izan da. Ildo beretik, liburuko azken olerkia, “Etxe zaharreko armiarma”, askotan iruzkindu da liburuko azkena delako, Arlandisek (2016) *factor incidencial* deiturikoa delakoan, liburuari egitura zirkularra emanez. Hona hemen, esaterako, Kortazarren hitzak:

Liburuaren itxieraren metafora, nola biltzen diren idazketa berean atea eta liburua, pertsonaiaren keinua atea hersterakoan, eta irakurlearena liburuko azken orrialdeari buelta ematerakoan. Ekintza batasun hau ez da bakarra. Atea itxi, etxea utzi egiten duen neurrian, liburua bukatuz, liburuaren hasieran kokatzen da Sarrionandia, bidaiari hasiera emanez berriro. (Kortazar 2001: 87)

Halere, gure ustez, “Testamendua”n ematen zaio amaiera liburu/kaierari, ezen, dioenez, “Eta hala izan dadintzat sinatzen dut testamendua / eta sartzen dut bitakora kaieran, / bidaiako beste edozein xehetasun bezala” (Sarrionandia 1981: 139). Hor amaitu da bidaia, irakurleari ematen dion oinordekotzaren adierazpenarekin, bidaiako txokoetan bildutakoen aipu laburtu zehatzekin. Hurrengo bi testuak, kaiera osteko epilogotzat uler daitezke. Lehena, “Zutik bizi da

gizasemea” irudimenezko bidaia izan dela, *ametsa* izan dela baieztatzen da. Amodioa, heriotza eta jaiotza bezain elementu esentzialekin jartzen du ameste ekintza hori. Poemak liburuari buruzko hausnarketa metaliterarioa eskaintzen digu: amestea (edo idaztea) bizitzaren osagai esentzialesetako bat da beretzat. “Etxe zaharreko armiarma”, aldiz, zilbor hestea moztea bezalakoa da. Etxe zaharra iragana da, haurtzaroko oroimen liluratua, agian. Izan ere, lilura horren elementu guztiak (senideak, jolasak) galdu dira, eta erlojuaren hotsak seinalatzen du denbora igaro dela. Berak armiarma zanpatzen du, eta atea ixten da. Gure ustez, ez da bitakoraren azken orria ixtea, iragan hori oroimenean gordeko duela baieztatzea baizik. Ikusitakoak ikusi, liburuko egituraketa modernistatzat definituko genuke. Aldiz, iurretarraren planteamenduak postmodernistagoak izango dira aurrerantzean, eta makrotestuaren egitura lotesleen indarra nasaitu eta urtu egingo da.

## 5. Hurrengo lanetan garatuko diren joerak

### 5.1. Itzulpenak

Jakina denez, Sarrionandiaren sorkuntza lanetan nabari da itzulpengintzaren eragina, eta, hori horrela, ez da harritzekoa egileari buruzko lehen doktoretza-tesiak itzulpengintzari erreparatu izana. Aiora Jakaren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* (Jaka 2011) izan zen, hain zuzen ere, bizkaitarrari buruzko lehen doktoretza-tesia.

*Izuen gordelekuetan barrena* liburuan hiru itzulpen aurki daitezke: “Aberria hautatu egiten da”, “Irlandar Herriaren aldekoak” eta “Ene izkribu guztiak”. “Aberria hautatu egiten da” olerkiaren kasuan, lehen edizioan olerkia bakarrik dago, inolako azalpenik gabe. Ondorioz, nekez pentsa daiteke itzulpena denik. Bigarren edizioan, ordea, olerkiaren azpian, egilea zehazten da: Angel Crespo. Olerkia Cresporen “Una patria se elige” olerkiaren azken ahapaldiaren itzulpena da. “Irlandar Herriaren aldekoak” olerkia, aldiz, Lady Gregoryren “A Poem Written in Time of Trouble by an Irish Priest Who Had Taken Orders in France” olerkiko azken ahapaldiaren itzulpena da. Azken itzulpena “Ene izkribu guztiak” da. Halere, testu honek badu alde nabarmena beste biekkin alderatuta; Kafkak idatzitakoa ez zen olerkia izan, bere egunerokoko pasarte bat baizik. Hori horrela, Sarrionandiak egunerokoaren pasarte bat hautatu, zati batzuk euskaratu eta olerki itxuran eman zituen. 1912ko abenduaren 25ean Kafkak sarrera luze bat idatzi zuen, eta, tartean, honako hau irakur daiteke:

En hebreo me llamo Amschel, como el abuelo materno de mi madre, el cual ha quedado como un hombre muy devoto y sabio, de larga barba blanca, en el recuerdo de mi madre, que tenía seis años cuando él murió. Recuerda que tuvo que sujetar los dedos gordos de los pies del cadáver y, al mismo tiempo, pedir perdón por las posibles ofensas hechas al abuelo. También recuerda los numerosos libros del abuelo, que cubrían las paredes. Se bañaba en el río cada día, también en invierno; entonces abría a hachazos un agujero en el hielo para bañarse. La madre de mi madre murió prematuramente de tifus. Tras esta muerte, la abuela cayó en la melancolía; se negaba a comer, no hablaba con nadie; un día, al año de la muerte de su hija, salió de paseo y no volvió; su cadáver lo sacaron del Elba. (Kafka 1995 [1948]: 132)

Pasarte horretan oinarrituta, hau da Sarrionandiaren “Ene izkribu guztiak” poema:

Hebreeraz Michel dut izena,  
gure amaren aitonak bezala.  
Hura zen jakintsua, hura:  
adats eta bizar zuri luzekoa,  
egunero bainatzen zen ibaian.  
Neguan ere, orduan aizkoraz  
izotzean zulo bat irekirik,  
Liburuak, aizkorak bezala,  
zulo bat zabaldu behar du  
gure baitan izozturiko itsasoan.  
Luzaroan jardun arren  
ez dut deus erdietsi.  
Ehortz nazazue Straschnitz hilerrian,  
ezerezta itzazue ene izkribu guztiak.

*Franz Kafka*

Bi testuak alderatuz, argi antzematen da Sarrionandiak ez duela Kafkaren testu baten itzulpena egin. Hark esandakoak parafraseatu ditu, Kafkarengandik hainbat ideia hartuta. Baina egileak ez zituen elkarrekin modu horretan adierazi. Beraz, zita edo aipamenak elkartuz eginiko testua da, Kafkaren ideia literarioen *collage* modukoa. Azkenik, Max Brod lagunari idatzitako gutunean egindako eskaera dago: bere idazlanak erretzeko eskaria.

Azkenik, liburuko “Apirilari gorazarrea” olerkiari aipamen egingo diogu. Izan ere, guztiz adierazgarria da. Jakak (2011 [2012: 320]) ezin hobeto azaldu bezala, olerki hau Elioten “The Waste Land” poemari emandako erantzuna da. Eliotek apirila hilabeterik krudelena dela idatzi zuen, eta horri erantzunez badaezpadako gorazarrea egin zion Iurretakoak. Sarrionandiak *Oh! Euzkadi* aldizkarian, eta geroago *T.S. Eliot euskaraz* liburuan, argiratu zuen olerkiaren euskal itzulpena. Bi testuek sorburu-testu berbera dute, eta Jakak zera ondorioztatu zuen:

Elioten poema gisa aurkezten du “Lur eremua”, eta “Apirilari gorazarrea”, berriz, berak sortutako poema gisa. Argi dago, ordea, “Lur eremua” Sarrionandiarena ere badela, ingelesez sortutako poema euskarara ekartzean Sarrionandiak bere interpretazioa eman baitio, bere ulermenaren arabera birsortu baitu. Era berean, “Apirilari gorazarrea” ez da soilik Sarrionandiarena, Eliotek bere poema idatzi ez balu Sarrionandiak ez baitzukeen inoiz horrelako erantzunik idatziko. Horrelako jolasen bidez, Sarrionandiak zalantzan jartzen du itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko bereizketa, eta gogorarazten du poema bakoitzak beste idazle eta itzultzaile batzuek egiten dizkioten itzulpen, berridazketa, erantzun edo berrasmaketei esker irauten duela bizirik, berridazketa bakoitzean bizi berria hartuz eta denbora, espazio, hizkuntza eta tradizio desberdin bakoitzean zentzu berriak bereganatuz. (Jaka 2011 [2012: 321])

“Apirilari gorazarrea”n Sarrionandia Elioten poemari erantzuten ari zaionez, hausnarketa intertestualak Genettek hipertestualitatea<sup>22</sup> izendaturiko modalitatean kokatu beharko genuke, *imitatio* gisa moldatua, baina erregistroa aldatuz. Egile anglosaxoiak esandakoak erregistroz aldatu, eta errefusatu egiten ditu. Hauxe da Elioten olerkiari erantzunez Sarrionandiak sortutako poema:

Apirilean du laborariak garagarra,  
lursagarra eta bazkabelarra ereiten.  
Apirilean du soroa ureztatzen,  
mahastiak estekatu eta aberaskak garbitzen.  
Apirilean, halaber, estalarazten du behorra,  
eta begiratzen mendiko larreak,  
urteko larrerik lehunenak.  
Eta zer gehiago apirilean? Haltzen eta  
atso errenen isladak aintziretan,  
alderantziz eta kulunka, maitaleenak ere.  
Eta zer gehiago apirilean? Usapalitsuak  
laztandu ahal dira, eta hurruntzen soegin  
erreka haziak daraman idi itoa.  
Eta zer gehiago apirilean? Ostatueta  
horditzen dira indiano zaharrak, eta aisa  
erantzten dira gauetan nesken alkondarak.  
Apirila ez da ilarik atsegina,  
baina krudelena ere ez.  
Eta ez diot gorasarre gehiago eginen

---

<sup>22</sup> Seigarren oharrean eman dugu hipertestualitate kontzeptuaren definizioa.

Poemaren bilakaera azpimarratu behar da; hasieratik omenaldia egiten dio Elioti, eta hark bezala naturaren eta giza bizitzaren arteko lotura paradoxikoa du aipagai; baina, aurrera egin ahala, gertaerak gehitu ahala, erregistroa aldatzen dio diskurtsoari, eta, efektu dramatikoaren ordez, egunero drama arruntak sortzen duen efektu ironikoa gailentzen da. Egituraketan “eta zer gehiago?” galdera hiru aldiz errepikatzen da, “eta ez diot gorazarre gehiago eginen” esanez amaitzen, desesperantza kutsuarekin. Esan daiteke Sarrionandiak irauli egin nahi duela Elioten baieztapena. Elioten poeman apirila udaberriko birsortzearen metonimiatzat hautatzen du, eta krudela izatea egozten dio pertsonifikatuz, loratzea gertatzen delako I. Mundu Gerrako hainbat milioiren bizitza gazteak ehortzi diren lurraldean. Sarrionandiak ironiko erantzuten dio hondamendi hori gabe ere udaberrian badirela krudelak bezain xumeak diren gertaera *arruntak* —udaberri aldeko uholdeak eta animalia itoak, emakume errenak, gizon hordiak—, ederrak diren beste askorekin batera. Munduko paradoxen aurrean patetismoa eragiten duten enuntziatioak arbuiatu, eta, “Eta zer gehiago?” galderak iradokitzen duen ahalegin poetiko alferraren ondorioz, itaunaren gradazio moduko batek desadostasuna adierazten du, asetzen ez duen emaitza. Horregatik, klimaxarekin amaitzen du: “Ez diot gorazarre gehiago eginen”. Hurrengo poesia liburuetan gero eta gehiago dira itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko muga lausoan kokatzen diren olerkiak —“Afrika Iparraldean”, “Itzulpen literala”, “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik”, esaterako—, eta liburu honetakoa da lehen adibidea.

## 5.2. Zenbait olerkitako egile-aldaera esanguratsuak

Azpiatal honetara ekarriko ditugu hurrengo poesia liburuetako edizio berrituetan dauden egile-aldaera esanguratsu bi, konstanteak direlakoan, denboraren aldiberekotasunarekin eta espazioen justaposizioarekin lotutakoak (ikus Arandia 2025b). Bi adibide ekarriko ditugu, hurrengo edizio berrituetan konstanteak izango diren egile-aldaerak aurkezteko.

Lehen adibidea “Salamina” da. Poemak bi argitalpen izan ditu, *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko bi edizioetan. Bigarren edizioko bertsiotan hiru bertso lerro gehitu dira amaieran. Honako hauek dira bi olerki-aldaerak:

“Salamis”

Hona hemen estatua elbarrituak  
—odola dariela beso, zango,  
buru ebakietarik—. Hona hemen  
marmorezko betiereko biztanleak  
—harri gorrituen gainean zutik—.

“Salamina”

Hona hemen estatua  
elbarrituak,  
odola dariela beso,  
zango, buru ebakietarik.  
Hona hemen

Hona hemen betiereko zentinelak  
ekaitzak beren uhartea eraman  
ez dezan zaindari. Hona hemen.  
(Sarrionandia 1981: 35)

marmolezko  
betiereko biztanleak  
harri gorrituen  
gainean zutik.  
Hona hemen sekulako  
zentinelak  
ekaitzak uhartea  
eraman ez dezan  
zaindari.  
Persiar ontzien  
eta alemaniar hegazkinen  
ondoren ere, hemen  
(Sarrionandia 2014: 55)

Olerkiak izenburuko Greziako uharteari buruz dihardu. Bigarren Mediar gerran borroka garrantzitsua egon zen bertan, eta itsas armada greziarrak persiarren itsas armada garaitu zuen. Eransketan uharteko beste guda bati egiten zaio erreferentzia. Izan ere, garai modernoetan, Alemaniako Luftwaffek bonbardatu zuen 1941ean, eta gertakari horri egiten zaio erreferentzia. Beraz, gehiketaren bitartez datu historiko argigarriak daude. Erasoen aurrean mantentzen den uharteari egiten zaio erreferentzia, haren iraunkortasunari. Gehiketarekin, mendeak igaro arren, defendatzen jarraitu behar duen irlaren ideia indartzen da. Denboraren aldiberekotasunaren adibidea da, eta beste olerki batzuetan ere aurki daiteke: “Euripean” edota “Errauts gorri xehea” olerkietan, hain zuzen ere.

Bigarren adibidea “Soldadu hilaren ama” da. Egoeren justaposizioa zenbait olerkitan iragarri gabeko aldaeren bitartez egin bada ere, beste batzuetan epigrafean bariazio izendapena gehituz burutu da.<sup>23</sup> *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan eta *Marinel zaharrak* lanean dagoen “Soldadu hilaren ama” olerkiaren kasua da hori, zeren gaia eta tankera bera izan arren, bi espaziotan kokatzeak (Iparraldean eta Irlandan) moldaketa batzuk egitera darama autorea. Olerkiak hiru argitalpen izan ditu: *Izuen gordelekuetan barrena* (1981, 2014) eta *Marinel zaharrak* (1987). Egile-aldaera esanguratsua bi bildumen artekoa da. Olerkian semea

---

<sup>23</sup> Ayerbek (2016: 112) adierazi zuen olerkiaren epigrafe aldatu zela: “Antzekoa jazotzen da “Soldadu hilaren ama” poemaren epigrafean ere, jatorrizkoan “‘Oroith gutaz’ irakurri eta ‘O war is a casual mistress’ erran zuen hilarriaren aurrean soldaduaren ama ikusirik” azalpena agertzen bada ere, berridazketan “Soldadu batek” sinaduraren aurretik “O war is a casual mistress” aipua bakarrik mantendu da”. Edonola ere, guretzat benetan esanguratsua dena gertakari bera beste espazio batean kokatzean bariazioa dela adierazten duela da.

frontean duen ama batek bi eskutitz jaso ditu. Lehenengoa semearena da; eta bigarrena, semearen lagun batena. Bigarren gutunean semea hil dela jakinarazten diote amari. Halere, amak bigarren eskutitza irakurri izan ez balu bezala jarraitzen du eguneroko lanekin. *Izuen gordelekuetan barrena* lanean ingelesez *lost generationi* egiten zaio erreferentzia, eta *Marinel zaharrak* liburuan, aldiz, I. Mundu Gerran frantsesen alde borrokatzera deitu zituzten euskaldunei. Espazioaren justaposizioaren adibide da olerki hau, eta beste zenbait poemaren egile-aldaeretan ere aurki daiteke, hala nola *Hnuy illa nyha majah yahooko* “Zurumurrua”n (Sarrionandia 1995).

Labur ekarritako bi ezaugarri hauek Sarrionandiaren lanetan hedatuz doaz, azken poesia liburuan —*Hnuy illa nyha majah yahoon*— ardatz bihurtzeraino, eta aldaera hauek erakusten dute liburuaren edizio berrituak apailatzen dituen horiek gehitzen edo indartzen dituela.

## 6. Ondorioak

*Izuen gordelekuetan barrena* pasio estetikoaren bulkadapean idatzitako lana da, eta ordena poetiko baten proposamentzat aditzen dugu. Euskal literaturak mundura zabaltzeko egin beharreko bidaiaren metaforan iltzatuta dagoela ulertzen dugu; trantsizio garaiko belaunaldiaren mito fundazionalari entzuten dio, beraz. Bestalde, euskarazko hizkera literarioa finkatzea zen lanaren jomuga. Bidaia literario horretan Kavafisen “Ithaka” olerkiak berebiziko eragina izan zuela deritzogu. Izan ere, helburua argia da: Europar ibili eta bertako korrante eta nukleo batzuekin harremanetan jarri eta gero, ikasitakoak euskal literaturara ekartzea da liburuaren zentzua. Kontuan hartzekoa da Kavafisen “Ithaka” metafora gisa oso erabilia izan zela trantsizioko literaturan, bereziki Lluís Llach *Viatge a Ítaca* (1975) trantsizioan partekaturiko kantu mitikoen ildoan. Garai beretsuko *Ni ez naiz hemengoa* (1985) liburuko hausnarketa teorikoek ere asmo literario bera dutela uste dugu. Hau da, bertako hausnarketa ildo nagusiak hizkera literarioari begira, edota literatura nola egin galderari erantzuteko egindakoak direla; hots, galdera berei emandako erantzun ezberdinak direla *Izuen gordelekuetan barrena* eta *Ni ez naiz hemengoa*. Era berean, aipamen berezia egin nahiko genioke hizkera literarioari. Izan ere, ikusi dugunez, garai hartan idazlearen asmoetako bat hizkera literarioari ekarpena egitea zen, eta ildo horretan ulertzen ditugu 1981eko ediziotik 2014kora dauden zenbait egile-aldaera. Argitalpen batetik bestera hainbat ezaugarri dialektal orokorragoengatik ordezkatu direla ikusi dugu. Gure ustetan, hori hizkera literarioa finkatuta egotearekin lotuta egon daiteke. Izan ere, une batetik aurrera forma horiek erabiltzeari utzi dio, eta liburuaren edizio berrituetan kendu egin ditu. Azkenik, hainbat erregistrotako testuak aurki

daitezke lehen liburuan, eta hori ere hizkera literarioaren sorrerarekin lotuko genuke. Testu horien artean bereziki nabarmenduko genuke bildumako “Ossian” olerkia.

*Izuen gordelekuetan barrenako* estiloari dagokionez, 1970eko aldizkarietako abangoardien eta experimentalismoaren eragina nabarmentzekoa dela uste dugu, eta ezaugarri nagusitzat kulturalismoa eta abangoardia azpimarratuko genituzke. Kulturalismoa egilearen sorkuntza prozesuaren muinean dago, lehen liburutik azkenekoraino. Lehen lanean iurretarra kulturalismoaz baliatzen da gizaki garaikidearen idiosinkrasia ikusarazteko, eta, horretarako, arketipo unibertsalak darabiltza (itzulera eta Ulises, edota hilezkortasuna eta Gilgamesh). Bestalde, abangoardia ludismoarekin lotuta ikusi dugu, eta *Izuen gordelekuetan barrenan* dagoen pasio estetikoaren bulkadaz indartuta dago. Gainera, lehen poesia liburuan baliabide literarioei dagokienez, dikziozko figura sintaktikoek (anadiplosiek, anaforek edota paralelismoek) dute indarra. Eta, zehatzago, hitz edo egituren errepikapena inplikatzan duten irudiek. Hori horrela, euskal poesiak 1970eko hamarkadan izandako experimentalismo formalaren indar handiaren eragina antzeman daitekeela uste dugu. *Izuen gordelekuetan barrenan* hitz edo egituren errepikapena inplikatzan duten figurekin hainbat olerki sortu dira; horren adibide egokia da “Alexis Zorba” poema, non anadiplosian oinarrituriko estrategia bihurtu den testuaren egituratzaile formala. Gisa horretako olerkietan alderdi ludikoa eta esperimentalala nabarmentzen dira.

Ludismo hori *Izuen gordelekuetan barrera* idatzi zen garaiko testuinguruan ulertzen dugu. Trantsizio garaiko utopiekiko eta desenkantatu sentipenarekin harremanetan jartzen badugu, agerian geratzen da Potteko idazleek literatura josteta kritiko eta iraultzailea kultura egarri aseegin baten adierazpen lehertua bilakatu zutela. Hala, liburuan aurki daitezke experimentalismoaren muturreko adierazpenak, hala nola OuLiPoren ildoko poemak, edo eduki kulturez asegin den “Berrogei izen”. Hala ere, historiografian sorkuntzaren alde ludikoa lehen poema liburu horretara mugatzen bada ere, sarritan beranduagoko iurretarraren beste lan batzuetan ere badago. Adibidez, hitzen forma edo homonimiarekin jolasten du egileak trebetasuna eta ingenioa landuz “Kukuari koblak” (1995) bezalakoetan, edo jakintza filologikoan trebatzen da “Errauts gorri xehea” eta “Hurrutirean boluara dator hura” (1995) bezalakoetan. Garrantzitsua deritzogu egilearen alde horri erreparatzeari, plazer estetikoaren gune hori baita hizkuntzaz eginiko hainbat hausnarketaren iturrian aurkitu duguna *Ni ez naiz hemengoan*, edota irudimen ariketan harantzago joanez, fikziozko idazle eta itzultzaileak nahiz testuak sortzen dituenean, irakurleari gorde-gordeka keinuak eginez, edota bere poemetan topa daitezkeen hausnarketa metaliterarioetan.

Edizioen arteko alderaketari dagokionez, egileak uko egin zion urte luzez lehen liburua berrargitaratzeari, bere poetika aldatu baitzen, eta bertako olerki asko ez zituelako dagoeneko “estimatzin”. Halere, 2010eko hamarkadan bere obra poetikoaren berrikuspen orokorra abiatu zuenean, 1981eko liburuari berriro heltzea erabaki zuen, garai hartako poetikaren testigantza gisa. Horregatik, 2014ko edizioak ez dio *Marinel zaharrak* bildumaren logikari jarraitzen, eta jatorrizko egiturari eusten dio. Bi edizioek egitura bera mantentzen dute: bi hitzaurre, zazpi atal eta olerki kopuru bera. Prosazko hitzaurreek egilearen ikuspegi aldaketa erakusten dute, eta 1981ean ulertezina zena egun ulergarri bihurtu dela dio egileak, euskal literaturaren bilakaeraren adierazgarri.

Liburuaren giltza poetikoetako bat “Bitakora kaiera” da, eta olerkiaren bertsiok (1981, 1987, 2014, 2016) erakusten dute nola aldatu den egilearen tonua: lehen bertsiok ilunagoak eta etsipen handiagokoak dira, eta berriek ikuspegi humanizatuagoa dute. Adibidez, 1981ean bidaztiak “marionetak marionetentzat bezala eskribitzen du”, baina bertsiok berrietan “pertsonek pertsonentzat bezala izkiriatzen du”. Aldaketa horrek gizakiaren irudiaren humanizazioa adieraz dezakeela uste dugu: lehen marioneta menpeko eta galduta agertzen zen tokian, orain pertsona duinago eta autonomoagoa ageri da.

Egilearen hurrengo poesia bildumetan gailenduko diren ildoak dagokienez, bi nabarmendu ditugu: itzulpenak eta zenbait olerkitako egile-aldaera esanguratsuak. Itzulpenak dagokienez, “Apirilari gorazarrea” olerkian zabalduko ildoari jarraituz sortu zituen egileak hurrengo bildumetako “Afrika Iparraldean”, “Itzulpen literala” izenburuko hiru olerkiak eta “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik”. Bestalde, zenbait olerkitako egile-aldaera esanguratsuei dagokienez, bi nabarmendu ditugu: denboraren aldiberekotasuna eta espazioen justaposizioa gehitzeko/areagotzeko egindakoak, alegia. Bi ezaugarri horiek bizkaitarraren poeta ibilbide hasieratik egon arren, hurrengo liburuetara hedatuz doaz, eta azken poesia liburuan —*Hnuy illa nyha majah yahoo*— goia jo eta ardatz bihurtzen dira. *Izuen gordeleketan barrena* liburuko “Salamina” eta “Soldadu hilaren ama” olerkiek izandako aldaerak egilearen poesia lanetan denboraren aldiberekotasuna eta espazioaren justaposizioak izandako hedaduraren lekuko dira. Izan ere, egileak lehendik argitaratutako testuetan justaposizioa eta aldiberekotasuna erantsi ditu.

## 7. Bibliografia

Aldekoa, Iñaki. 2008. *Euskal literaturaren historia*. Jon Muñozen euskarazko itz. Donostia: Erein (1. argit. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein, 2004).

- Arandia, Ane. 2025a. *Joseba Sarrionandiaren poesia (1981-2016). Ideia literario eta praktika sortzailearen lorratzak*. Donostia: EHUko doktorego tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/76518>
- Arandia, Ane. 2025b. Joseba Sarrionandiaren erlatibitate erresistentea. *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca* 48. 224-249. <https://doi.org/10.55698/SS48-2025-11>
- Arandia, Ane. 2026. Vestigios del desencanto: la huella emocional de la Transición en la obra de Joseba Sarrionandia. In Maite Goñi & Esther Gabiola (arg.), *Voces literarias en contextos de transición*, 187-213. Sevilla: Editorial Renacimiento.
- Arlandis, Sergio. 2016. El macrotexto poético: claves para su determinación metodológica. *Mitologías hoy* 14. 317-335. <https://doi.org/10.5565/rev/mitologias.391>
- Arranz, Iñaki. 2006. *Hitza azti: saiakera*. Irun: Alberdania.
- Astiz, Iñigo. 2024. Joseba Sarrionandia: «Euskaldunok ‘eskizoglosia’ batean bizi gara, identitate zatituekin». *Berria* 2024-03-23. [https://www.berria.eus/kultura/euskaldunok-eskizoglosia-batean-bizi-gara-identitatezatituekin\\_2122573\\_102.html](https://www.berria.eus/kultura/euskaldunok-eskizoglosia-batean-bizi-gara-identitatezatituekin_2122573_102.html)
- Ayerbe, Mikel. 2016. *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/19554>
- Ayerbe, Mikel. 2020. Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelan. In Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga & Borja Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*, 81-94. Iruñea: Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.5>
- Azkorbebeitia, Aitzpea. 1998. *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat*. Bilbo: Labayru Ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Barbancho, Iñigo. 2008. *Izuen gordelekuetan barrena* (1980) Joseba Sarrionandia. In Jon Kortazar (zuz.), *Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH)*. Leioa: EHU. <http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=685>
- Bellemin-Nöel, Jean. 1972. *Le texte et l'avant-texte. Les brouillons d'une poème de Milosz*. Paris: Larousse.
- Corti, Maria. 1976. *Principi della comunicazione letteraria*. Milan: Bompiano.
- Eguzkitza, Antolin & Olga Omatos. 1995. *K.P. Kavafis. Poema antologia*. Iruñea: Pamiela. <https://armiarma.eus/emailuak/pamiela/kavafis.htm> (2026-04-30).
- Etxeberria, Hasier. 2002. Joseba Sarrionandia. In Hasier Etxeberria (arg.), *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, 126-149. Irun: Alberdania.
- Genette, Gérard. 1982. *Palimpsestes. La littérature au second degré*. Paris: Seuil.
- Izagirre, Koldo. 1993. Txipitasunaren iraultza (etxemaitez eta espetxez). In *Gaurko poesia*, 55-71. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Jaka, Aiora. 2011. *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia (Argit. Bilbo: Euskaltzaindia & EHU, 2012. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/75892.pdf>).

- Kafka, Franz. 1948. *Franz Kafka. Tagebücher 1910-1923*. New York: Schocken Books (Feliu Formosaren itz. Bartzelona: Lumen, 1995).
- Kortazar, Jon. 1982. Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrena*. *Jakin* 23. 133-141. <https://jakin.eus/show/d88601a948ed29ca4d5a629b83fb2620b3a4b4e0>
- Kortazar, Jon. 1997. *Luma eta lurra. Euskal poesia 80ko hamarkadan*. Bilbo: BBK & Labayru Ikastegia.
- Kortazar, Jon. 2001. *Pott bandaren poesia. Oroimenaren eszenatokiak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Llach, Lluís. 1975. *Viatge a Ítaca* [LP]. Madril: Movieplay.
- Madariaga, Juan Ramon. 1995. Sarrionandia estreineko aldiz. *Hegats* 12. 33-40.
- Markuleta, Gerardo. 1990. Sarrionandiaren samurra zertan den. *El Diario Vasco. Zabalik* 1990-02-28. 3.
- Olaziregi, Mari Jose & Nerea Eizagirre (zuz.). 2022. *Joseba Sarrionandiaren literatura: Bitakora kaiera* [uda ikastaroa]. Bilbo: UPV/EHU, 2022/07/18-2022/07/19.
- Otaegi, Lourdes. 2000. *Joseba Sarrionandia: marinel zaharraren kantua*. Bilbo: BBK & Labayru Ikastegia.
- Otaegi, Lourdes. 2013. Distopia eta paradisia Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren *Etiopia* makrotestuaren irakurketa semiotikorako hausnarketa kritikoak. *Lapurdum* 17. 109-173. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2425>
- Oulipo (Ouvroir de Littérature Potentielle). 1973. *La littérature potentielle*. Paris: Gallimard.
- Rodriguez, Eider. 2013. *Joseba Sarrionandiaren "Lagun izoztua" eleberriko hiru itsasoak. Irakurketa proposamen bat*. EHUko doktorego tesia. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Eider\\_Rodriguez\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Eider_Rodriguez_TESIA.pdf)
- Sarrionandia, Joseba. 1980. Guillaume Apollinaire (1880-1918). Artearen eta literaturaren bidegurutzean. *Zeruko Argia* 1980-07-27. <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAzokoPrensaWEB/argitalpen/179997/data/333496800000> (2026-04-30).
- Sarrionandia, Joseba. 1981. *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo: Aurrezki Kutxa (Berrargit. Iruñea: Pamiela, 2014).
- Sarrionandia, Joseba. 1984. *Laberintoko egunkaria*. Argitaratu gabeko eskuidatzia.
- Sarrionandia, Joseba. 1985. *Ni ez naiz hemengoa*. Iruñea: Pamiela.
- Sarrionandia, Joseba. 1987. *Marinel zaharrak*. Donostia: Elkar.
- Sarrionandia, Joseba. 1995. *Hnuy illa nyha majah yahoo*. Donostia: Elkar.
- Sarrionandia, Joseba. 1997. *Hitzen ondoeza*. Tafalla: Txalaparta.
- Sarrionandia, Joseba. 2004. *Akordatzen*. Tafalla: Txalaparta.
- Sarrionandia, Joseba. 2011. *Kartzelako poemak*. Zarautz: Susa. (1. argit. *Gartzelako poemak*, 1992).
- Sarrionandia, Joseba. 2016. *Hilda dago poesia? ¿La poesía está muerta?* Iruñea: Pamiela.
- Sarrionandia, Joseba. 2018. *Hilda dago poesia? És morta la poesia?* Bartzelona: Pamiela & Pol-len Edicions.

- Sarrionandia, Joseba. 2018. *Gure oroitzapenak*. Donostia: Elkar.
- Sarrionandia, Joseba. 2020. *Gauzak direnak balira (Habanako gaukaria)*. Iruñea: Pamiela.
- Sarrionandia, Joseba. 2023. *Markos Gimenoaren 101 letrakartel*. Iruñea: Pamiela.
- Silvestre-García, Laura. 2018. Transfinito. Yturralde. In Laura Silvestre-García (koord.), *Transfinito. Yturralde*, 14-23. Valentzia: Universitat Politècnica de València.
- Sarasketa, Mitxel (L. Txaho). 1984. Literatura, bizitzeko modua besterik ez da. *Argia* 1021 (1984-06-24). 22-25. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1021/literatura-bizitzeko-modua-besterik-ez-da>
- Txaho, L. = Mitxel Sarasketa.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zulaika, Joseba. 2025. Historiaren albatrosa: Coleridge, Sarrionandia eta marinel zaharra. In Nerea Eizagirre & Mikel Ayerbe (arg.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera*, 161-180. [Leioa]: EHU.